AIARALDEA hemen

KULTURA:
La Polla Records eta Eskorbutoren arteko talkaren azken atala Laudion 14-15 or.

GENTZANE ALDAY CALONGE:
“Txapelketak aurrera egin ahala geroz eta maila handiagoa dago Emakume Master Cup-ean” 18-19 or.

Egurra emateko prest

AMURRIO ETA URDUÑAKO KINTOAK

AMURRIO 2
Datorren igandean geratuko da aske Julen Ibarrola gaztea
Amurrioarrak urtebete eman du kartzelan errotulki batekin margoketa bat egiteagatik

OROZKO 3
Frankismo garaiko errepresaliatuak omenduko dituzte
Hainbat jarduera egingo dituzte herrian otsailaren 15ean eta 16an

AIARALDEA 5
Greba feministari begirako planteamendua aurkeztu dute
Urduñan egingo da martxoaren 8ko eskualdeko mobilizazioa

ARTZINIEGA 7
Egitarau oparoarekin hasi dute urtea Burubio Kultur Elkartean
Nogenek, Joseba Irazokik, Olatz Salvadorrek eta Eskean Kristok joko dute, besteak beste

YANDIOLA
HORTZ KLINIKA LAUDIO
1945. urtetik Laudion zurekin
Karmen Kalea 13, behea
LAUDIO (Araba)
946 72 31 00

PADI PROGRAMA

INPLANTEAK

3D ERRADIOGRAFIAK

herriz herri

Amurrio

ALFREDO REMIREZ
PRESO OHIA

2018ko otsailaren 10a, larunbata, bisita ordua Basauriko espetxean.

Lagunekin bisita.

-19:00ak aldera sartuko da

-Oso ondo, hementxe egongo naiz itxoiten, non bestela?

7ak pasatxo eta gu zure zain. Eta azkenean agertu zinen.

Zure txamarra urdina jantzita zeneukala, besarkada estu bat eta gero, poltsa hartu eta txabolora joan ginen.

Gure auzokideen laguntzaz ohea muntatu eta zure txokoa atontzen hasi zinen, kortxoan familia eta bikotearen argazkiak jartzen. Poltsatik egutegi bat atera zenuen. Egutegi ederra, lagunek egina, argazki ederrez osaturik. Eskegitzen lagundu nizun. Eta bere aurrean gelditu zinen begira, aurrean zenuen urteari begira.

-Egon lasai -esan nizun, gezurra esanez– lehenengo astea da txarrena, gero azkarrago pasatzen da.

-Zuk gutxienez baduzu 3 hilabete ezabaturik -erantzun zenidan.

Gero arratsaldea eta gaua pasatu genuen hizketan eta barrezka. Eta lo egin baino lehen, lehenengo egun hori ezabatu zenuen.

Aste honetan (azkenean!), azkenengo eguna ezabatuko duzu, eta oraingoan ere zurekin egongo naiz besarkada handi bat emateko, azkena nahiko garratza izan baitzen.

Ongi etorri inoiz aldendu behar zintuzten herrira. Libre maite zaitugu Julen!

Aske geratuko da Julen Ibarrola datorren igandean

Duela urtebete sartu zen espetxean Julen Ibarrola. **Aiaraldea.eus**

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Igandean geratuko da aske Julen Ibarrola. Duela urtebete espetxeratu zuten gazte amurrioarra, errotulatzaile batekin pintaketa egiteagatik. Terrorismoa goratzea leporatu zion Entzutegi Nazionalak, eta urtebeteko kondena betearazi, Landazuriren okupazioan ere parte hartu zuelako. Ondorioz, "berrerorlea" izatea egotzi zioten.

Igandean bertan egingo diote ongietorria gaztetxean batzeko deia luzatu dute, eta 13:00etan kioskoan jarri dute zita.

13 proiektu gauzatuko dituzte AmurriokoEKIN prozesuaren bidez

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Urtarrilean amaitu zuten AmurriokoEKIN aurrekontu parte-hartzaileen prozesua. 951 bizilagunek parte hartu zuten azken bozketan, Amurrioko biztanleen %10,9k, hain zuzen. 5.000 euro baino gehiagoko aurrekontua duten hiru proiektu gauzatuko dira eta aurrekontu baxuagoa duten hamar. 430.000 euro baliatuko dituzte guztira egitasmo guztiak egikaritzeko.

Enplegu-espedientearen aurka mobilizatzeari ekin diote Tubos Reunidoseko langileek

Elkarretaratzea egin zuten Amurrion iragan ostiralean. **Aiaraldea.eus**

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Mobilizatzeari ekin diote Tubos Reunidoseko langileek, enpresako zuzendaritzak ezarritako Aldi Baterako Enplegu Espedientearen aurka. Iragan asteko asteartean fabrikako zubian bildu ziren. Ostiralean, aldiz, Amurrion egin zuten elkarretaratzea, eta lantegira martxa antolatu zuen gero Ernai gazte antolakundeak. Otsailaren 28an, ordea, Laudioko Herriko plazara eramango dute aldarria. "Hilero planteatuko ditugu mobilizazioak", jakinarazi dute.

LABek irabazi ditu hauteskunde sindikalak Amurrio Ferrocarrilen

Testua
Aitor Aspuru Saez

LABek lortu du ordezkari gehien Amurrio Ferrocarril enpresan atzo egindako hauteskunde sindikaletan. Sindikatu abertzaleak 74 boto eskuratuta, bost ordezkari izango ditu enpresa batzordean. ELAk, berriz, hiru ordezkari lortu ditu, 44 botorekin. ESK-k, aldiz, ordezkari bat izango du batzordean, 10 boto lortu baititu.

2015ean LABek lau ordezkari lortu zituen (43 boto), ELAk 3 (45 boto) eta UGTk bi (21 boto). LABek positiboki baloratu ditu izandako emaitzak: "Jendeak azken lau urteetan eginiko lana baloratu du, eta hori nabaritu egin da emaitzetan".

elkarlan asesores
www.elkarlan.eu
Foru kalea, 2. AMURRIO.
Tel 945 39 33 51
Lamuza, 12. LAUDIO.
Tel 946 72 74 28
Torre de Ugao, 12. UGAO.
Tel 946 03 91 65
Aseguru bat pertsona bakoitzarentzat
www.elkarseguro.com

herriz herri

Orozko

Frankismo garaiko errepresaliatuak omenduko dituzte otsailean

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Guda Zibilean zein Frankismoan errepresaliatutako bizilagunak omenduko dituzte. **Orozkoko Udala**

Memoria historikoaren aldeko ekitaldia egingo dute Orozkon datorren otsailaren 16an. Herriarekin harremana izan eta frankismoan errepresaliatuak izan ziren pertsona guztiak omentzea izango da egitasmoaren xedea. Jose Lopez Tatok eginiko eskultura bat inauguratuko dute, 13:00etan Lehendakaria Agirre plazan.

Ordu bat lehenago ekimenaren aurkezpena egingo dute Donibane aretoan. Josu Chueca historialariak hartuko du hitza bertan, eta bideo bat ere proiektatuko dute, hainbat familiaren testigantzak biltzen dituena.

Aurreko egunean -otsailak 15-, aldiz, Iñaki Egaña ikerlariak hartuko du hitza, *Orozkotik harago* solasaldian. Orozkoko Museoak, bere aldetik, gaiari buruzko erakusketa atondu du, hilabete osoan zehar ikusgai egongo dena.

Ehundik gora errepresaliatu

Duela zenbait hilabete ekin zion bizilagun talde batek memoria historikoa berreskuratzeko lehen pausoak emateari, udalarekin elkarlanean. Egin dituzten ikerketen arabera, ehundik gora errepresaliatu egon ziren Orozkon Frankismoaren ondorioz: 21 hildako, 79 zigortu, bestelako errepresaliak jaso zituzten 8 kide eta San Martin auzoan derrigorrezko lanak egin behar izan zituzten 41 lagun. Hala ere, ekimenaren bultzatzaileek nabarmendu dute izenak falta direla, informazioa lortzea oso zaila suertatzen ari zaielako. Horregatik, gainontzeko herritarrei laguntza eskatu diete, oraingoa "lehen pausoa" baino ez dela iritzita.

Txakurrek 6 ardi hil eta 8 zauritu dituztela salatu du udalak

Abereen aurkako txakurren erasoak salatu ditu Orozkoko Udalak. Izan ere, aurreko asteburuan Olaguenaga inguruan 6 ardi hil zituzten animaliek, eta beste 8 zauritu. Zentzu horretan, kaltetutako artzainari babesa helarazi dio udalak. "Ez dira gutxi mota honetako gertakariak", erantsi dute.Hori dela eta, Bizkaiko Foru Aldundiari oihanzaingoaren zorroztasuna eskatu diote, "mendietan egoten den txakurren kontrol eza" gelditzeko.

Mendi eremuetan ez ezik, herrigunean ere zenbait neurri abian daudela gogoratu dute: "Kale eta espazio publikoetan txakurrak uneoro lotuta joan behar dira, haien ezaugarriekin bat datorren eta gehienez 2 metroko luzera duen kate edo uhal sendoarekin".

BABESTUTAKO EDUKIA

Araba Fitness: Aiaraldeko gimnasiorik handiena, herritar ororen eskura

1.000 metro karratu baino gehiagoko kirolgunea da Araba Fitness, 35 urte baino gehiagoko ibilbidea duena. Kuota finkoa ordainduta, ikastaro eta jarduera eskaintza oparoa eskaintzen dute bertan. CrossFit gunea ere dute, eskualdeko bakarra.

Laudioko Jose Matia kalean dago Araba Fitness. Eskualdeko gimnasiorik handiena da. 1.000 metro karratu baino gehiago ditu, hainbat aretotan banatuta. Ekintza eskaintza zabala dute bertan: haur zein helduentzako karatea, muskulazioa, spinning, zumba, taichia, just-pump, pilates, kung fu...

Era berean, Araba Fitnessen dago CrossFita praktikatzeko Aiaraldeko gune bakarra. Eskualdeko zein eskualdetik kanpoko kirolariak bertaratzen dira geroz eta hedatuago dagoen kirol hori praktikatzera.

Eskaintza oparo horretaz gozatzeko parada dute gimnasioaren erabiltzaileek, hilero 39,9 euroko gutxiengo kuota finkoa ordainduta.

Ibilbide luzeko egitasmoa da Araba Fitness. 1982. urtean sortu zen. Garai hartan Virgen del Carmen kalean zegoen, harik eta 2003. urtean gaur egungo kokalekura mugitu zen arte.

Zabala da baita ere gimnasioaren ordutegia. Goizeko bederatzietatik gaueko hamarretara dago irekita astelehenetik ostiralera, etenik gabe. Larunbatetan, aldiz, 10:00etatik 14:00etara.

Jose Matia kalea 36, LAUDIO **94 672 27 49**

herriz herri

Urduña

Ia 100 gaztek hartu dute parte Lonja Laket!! programan

14-26 urte bitarteko 96 gaztek -51 neska eta 41 mutil- hartu dute parte Lonja Laket!! programaren 2. edizioan. Ai laket! Elkarteak dinamizatu du ekimena.

Hiriko 7 lonja bisitatu dituzte, bertako gazteen artean drogen kontsumoarekiko arriskuak murriztu eta erabilera arduratsua sustatzeko. Txokoetako batzuetan zenbait substantzien laginak hartu dituzte, aztertu ahal izateko. Horrez gain, hainbat hitzaldi eta tailer eskaini dituzte, hainbat gai lantzeko: drogen kontsumoa, harreman afektibo-sexualak eta bizilagunekin elkarbizitza.

Gazteek oso positiboki baloratu dute ekimena, 9,1 puntuko nota jarri baitiote.

Otxomaioei begira jarri dira dagoeneko urduñarrak

Otxomaioetarako motorrak berotzeari ekin diote Urduñan. Aurtengo jaietarako pregoilari eta txupineroak proposatzeko deia luzatu die jai batzordeak herritarrei.

Buzoia jarri dute horretarako Alondegian, baina aukera egongo da izenak Internet bidez ere helarazteko, www.urduna.com webgunearen edo udalaren Facebook eta Twitter kontuetan. Otsailaren 28ra arte egongo da proposamenak bidaltzeko epea.

Horrez gain, Otxomaioetako kartel lehiaketa ere jarri dute abian. Martxoaren 1era arte egongo da lanak aurkezteko tartea. Lau kategoria egongo dira: 5-9 urte, 10-15 urte, 16-30 urte eta 30 urtetik gorakoak.

Hodeiren aldeko ikuskizuna taularatuko du Erauntsi taldeak

Erauntsi dantza taldeko kideak, artxibo irudi batean. **Aiaraldea.eus**

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Dantza emanaldi berezia eskainiko du Erauntsi dantza taldeak otsailaren 17an Antzinako Andra Mari Ikastetxean. Bi emanaldi eskainiko dituzte, 17:00etan lehena eta 19:00etan bigarrena.

Sarrerak hiru euro balioko du, eta bildutako dirua *ataxia telangiectasia* gaixotasunaren ikerkuntza finantzatzera bideratuko dute. "Gaixotasun arraro bat da *ataxia telangiectasia*. Euskal Herrian bi umek baino ez dute, eta horietako bat gure auzokidea da: Hodei. 2 urte ditu eta Artomañan bizi da", azaldu dute dantza taldeko kideek. Sarrerak Alondegian egongo dira salgai.

Dantza emanaldia ez da izango Urduñan Hodeiren alde egingo den ekintza bakarra. Otsailaren 19ean, esaterako, egun osoko egitaraua prestatu dute hiriko norbanako eta elkarte ugariren artean.

Artziniega

Ia 2.000 sinadura bildu dituzte museoaren alde

Elkarretaratze jendetsuak egin dituzte ostiraletan. **Aiaraldea.eus**

Artziniega Museoaren aldeko mobilizazioek bere horretan jarraitu dute azken bi asteetan. Elkarretaratze jendetsuak egin dituzte ostiraletan udaletxearen aurrean. Horrez gain, ia 2.000 sinadura bildu dituzte internet bidez, konponbide bat eskatzeko.

Oharra: Eduki hau herritar eta bazkideen laguntzari esker plazaratu da, Artziniegako Udalak tokiko euskarazko hedabide bakarra ekonomikoki ez babestea erabaki baitzuen.

Aiara

Lilatoira joateko autobusa antolatuko dute Aiaratik

Aiarako Udalak autobusa antolatu du Biltokia kultura elkartearekin batera Donostiako Lilatoia lasterketa ospetsuan parte hartzeko. Otsailaren 23a baino lehen eman beharko da izena. Apuntatzeko bi modu egongo dira, 652744498 telefonora deituta edota aiarakobiltokia@gmail.com helbidera mezua bidalita. "Lilatoian parte hartzeko edo laguntzera joateko" deia luzatu dute ekimenaren sustatzaileek.

Bidaiaren prezioa 5 eurokoa izango da, eta lasterketarena 11 eurokoa. Ibilbideak 5 kilometro izango ditu aurten ere, eta iragan edizioetan bezala milaka lagun elkartzea aurreikusi dute. Probari dagokionez, 10:30ean abiatuko da. Partaideek kamiseta bana jasoko dute.

Okondo

Hirix plataforma erabiltzeari ekin dio udalak

Hirix plataformara batu da Okondoko Udala. Modu horretan, herritarrek aplikazio hori mugikorrean jaitsi ahal izango dute udalerrian gertatzen diren gauzen berri izan eta tokiko erakundearekin harremanetan jarri ahal izateko. Kultur elkarteek, kirol taldeek eta merkatariek ere aukera izango dute edukiak partekatzeko.Play Storen edo Apple Storen eskuratu daiteke aplikazioa.

herriz herri

Aiaraldea

Martxoaren 8ko greba feministarako plangintza aurkeztu dute

Iragan larunbatean egin zuten agerraldia Laudioko Lamuza parkeko Kasinoan. **Aiaraldea.eus**

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

24 orduko greba izango da martxoaren 8koa. Iazko mobilizazio arrakastatsuen ondotik, aurtengo egitarauak aurreratu zituen Aiaraldeko Mugimendu Feministak iragan larunbatean eginiko aurkezpenean. Eskualdeko baterajotzeak goizeko 12:30ean eta 20:00etan izango dira. Aurreneko mobilizazio nagusiaren izaera herrietako asanbladek erabakiko dute; alegia, tokiaren araberakoa izango da jarduera. Arratsaldean elkartuko dituzte inguruetako emakume guztiak manifestazioan, Urduñan hain zuzen. "Greba feminista izango da, eta emakumeei bideratuta dago. Arratsaldeko mobilizazioan jende orok hartu ahalko du parte, beti ere protagonismoa -lehen lerroak- emakumeenak izango direlarik", adierazi dute. Gizonezkoen ekarpena zein izan litekeen argitze aldera, eskuorriak banatuko dituzte bailaran zehar.

Asanblada parte hartzaileak

Urduñan, Amurrion, Laudion, Aiaran eta Orozkon egin dituzte orain arte bilera irekiak. Bertan mamitu dituzte grebarako bost ardatzak: hezkuntza, kontsumoa, lan mundua, pentsioak eta zaintza. Azken hau, baina, zeharlerro gisa jorratuko dute, eremu guztietan eragiten baitu.

Datozen egunetan hitzordu gehiago egongo dira, eta horietan itxiko dituzte egitarauak. Horrenbestez, aurrerago emango dute egitarau zehatzaren berri.

Otsailaren 14an 18:30ean mahaingurua egingo dute Arespalditzako emakumeen gelan. Sistema heteropatriarkatu eta kapitalistak emakumeengan duen eragina izango dute hizpide solasaldian, hezkuntza, kontsumoa, lan mundua, zaintza eta pentsionisten egoera aztertuta.

Kokoriko Hezkuntza Faktoria jaio da

Laudioko Lamuza parkeko Kasinoan egin zuten aurkezpena. **Aiaraldea.eus**

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Iragan ostiralean -otsailak 1- egin zute Kokoriko Hezkuntza Faktoriaren aurkezpen publikoa, Laudioko Lamuza parkeko kasinoan. Dozenaka haur eta heldu bertaratu ziren Aiaraldea Ekintzen Faktoriaren ildo jaioberriaren nondik norakoak gertutik ezagutzeko. "Haur eta gazteak erdigunean" jarriko dituzten proiektuak garatzea izango da ildoaren xede nagusia, "jolasaren bidez".

Otsailaren 16an izango da Kokorikoren hurrengo jarduera. Egun osoko hezkuntza jardunaldiak egingo dituzte Urduñan, Alondegian, 10:00etatik 18:30era, doan.

herriz herri

Laudio

Erabiltzen ez den eraikin bat eraitsiko dute Isasin horma berregiteko

Hezkuntza zentroko eraikinetako bat eraitsiko dute horma berregiteko. **Aiaraldea.eus**

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Isasiko hormaren arazoa nola konponduko duten jakinarazi du udal gobernu taldeak. "Horma modu egokiagoan berregiteko aspalditik hutsik dagoen -hau da, erabiltzen ez den- eraikin txiki bat eraitsiko da", azaldu du Jon Ander Altubek.

Alkateordeak aipatu du Hezkuntza Sailaren oniritziaren zain egon direla orain arte, erakunde horrena baita eraikina. "Azaro amaieran baieztatu ziguten".

Gauzak hala, proiektu teknikoa osatzeari ekin diote orain, eta "epe laburrean" amaitzea espero dute. Oraindik ez dute aurrekontua zehaztu, Altuberen esanetan. "Udaberritik aurrera osoko bilkurara eramango genuke partida ekonomikoaren onarpena".

Alkateordeak nabarmendu du eraikina eraistea dela horma berregiteko modurik "erraz eta merkeena". Horma berreskuratzeko 20.000 euroko inbertsioa adostu zuten iaz.

Lur erorketa

Iragan abenduaren 27an urtebete bete zen Isasi auzoan lur-erorketa gertatu zenetik. Gregorio Marañon ikastetxearen aldameneko horma errepidera erori zen, lau ibilgailu txikituta eta emakume bat zaurituta.

Basoetan bioaniztasuna sustatzeko neurriak hartu ditu udalak

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Basoen kalitatea hobetzeko zenbait neurri hartu ditu udalak. Horien artean daude Arrañon, Larrean edota Goienurin hostozabalak landatzea edota Zenagortan 2 hektarea gaztainondo ereitea, zuhaitzak eta fruituak historikoki zein ekonomikoki izandako garrantziari bide emanez.

Oraingoa, ordea, ez da lehenbiziko pausoa izan: 2017an 75 hektarea baso landatu zituen udalak. "Intsinisa herena baino ez zen izan, 25-26 hektarea; eta hostozabalak 18". Zentzu horretan, errentagarritasunaren eta osasungarritasunaren arteko oreka bilatuko du tokiko erakundeak, Jon Ander Altube alkateordearen hitzetan.

2018-2019 urteetarako aurreikuspenei dagokienez, 38 lur hektarea biziberrituko dituzte. Horietatik %12 intsinisa izan da. %44, berriz, astigarrak, erkametzak eta abar. Errentagarritasunaz galdetuta, alkateordeak argitu du Arabako Foru Aldundiak ezartzen duela ehunekoa: "Irabazien %15 jasotzen du udalak hortik".

ELA sindikatuak 13 ordezkaritik 10 lortu ditu Guardianen

Iragan ostiralean izan ziren hauteskunde sindikalak Guardian enpresan eta ELA sindikatuak garaipen nabarmena eskuratu zuen. Izan ere, langile batzordea 13 ordezkarik osatzen badute, 10 ELAkoak izango dira. LABek 2 izango ditu eta ESKk, ordea, bakarra. Zehazki, emaitzak hurrengoak izan dira: ELAk 260 boto jaso ditu, LABek 69, ESKk 38, eta UGTk 14.

UGTk, zenbait boz jaso baditu ere, ez du ordezkaririk izango. "Hasitako borrokarekin jarraitzeko" konpromisoa hartu du ELAk.

Otsailean egingo dituzte auzo batzar guztiak, bi astetan

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Otsailean egingo dituzte Laudioko auzo batzar guztiak, 11tik 21era. Arratsaldeko zazpietan izango dira bilera guztiak. Hilaren 11n Aretakoa egingo dute, bertako Kultura etxean. 12an Arrañokoa Herriko plazako erabilera anitzeko aretoan. 13an Gardeakoaren txanda izango da, auzoko gizarte etxean. 14an landa eremukoa gauzatuko dute Herriko plazako aretoan, 15ean Ugartekoa auzoko elizan, 19an Latiorrokoa bertako eskolan, 20an Larrazabalgoa Herriko plazan eta 21an herrigunekoa, Kultura etxean.

Jon Ander Altubek aurreratu du "ohiko eskema eta ordena" mantenduko dutela bileretan, baina aurten ahalegin berezia egingo dutela "auzo bakoitzeko errealitatean sakontzeko". "Egin diren proiektuak azaldu eta gauzatu ez direnak ez egitearen arrazoiak aipatuko ditugu. Horrez gain, abian dauden edo laster martxan jarriko diren egitasmoen berri ere emango dugu, eta aukera emango diegu bizilagunei euren kezka eta proposamenak plazaratzeko".

Haurtzaindegi zerbitzua

Alkateordeak nabarmendu duenez, haurtzaindegi zerbitzua egongo da batzarretan: "Zerbitzua baliatu nahi bada hiru egun lehenago deitu beharko da Berdintasun Sailera, 944034850 telefono zenbakira".

Ekoizpena erabat gelditzea lortu dute Aiala Vidrioko langileek bost greba egunetan

Presentzia polizial handia egon da egun batzuetan. **LAB Aiaraldea**

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Bost greba egun egin dituzte dagoeneko Aiala Vidrioko langileek, lan-hitzarmenaren alde. Urtarrilaren 8an, 9an, 20an eta 27an eta otsailaren 3an egin dituzte lanuzteak, eta beste bat deitua dute datorren otsailaren 10erako.

Gaur -hilak 6- bilera egingo dute beharginek Laudioko Kultura Etxean, zuzendaritzak astelehenean helarazi zuen proposamena baloratu eta zer egin erabakitzeko.

Sindikatuek nabarmendu dutenez, orain arte eginiko grebek "ia %100eko jarraipena" izan dute. Ekoizpena erabat gelditzea lortu dute beharginek, bulegoko bi kide baino ez baitira sartu lantegian.

Ertzaintzaren presetzia nahiko handia izan da egun batzuetan, zuzendaritzako kideak fabrikan sartzerakoan, batez ere.

Laudio

ESTI URRESOLA

ZINEMAGILEA

Nolako egurra, halako sua

Lamuza eskolak 50 urte betetzen dituen honetan, pantailaren aurrean urduri estutzen ditut ipurmamiak eta zenbatzen hasten naiz: zenbat oroitzapen, zenbat lagun, zenbat hastapen... Zenbat urte!!! Zenbat? Zenbat, patio hura utzi nuenetik? DBHa institutuan estreinatu genuen belaunaldikoa naiz ni... beraz... atera kontuak, nahi izatekotan.

Txikia nintzenean astelehena zen nire astegunik gogokoena. Nagusiek barre egiten zuten arren, bai, gustokoa nuen klasera joatea. Gustokoa ikastea. Zeren Lamuzan ikasitakoa ez zen ikasgelen hormen baitan jasotakora mugatzen. Patio horretan bizi baikenituen Lamuzarrok ikaste-lehenak, astelehenetik astelehenera.

Lehenengo maisuak, eta lehenengo musuak; lehenengo aldagelak eta lehenengo aldaketak; lehenengo lagunak, lotsak, borrokak eta lehenbiziko gorrotoak. Zenbat? Hamaika ikaskizun, jolastokia baino ikastokia zirudien horretan.

(...) Ikasi, gorputzaren iratzartzeari hegoak ezin zitzaizkiola eman ere ikasi nuen, patio erdian bederen, eta horretarako askoz pribatu eta egokiagoa zela Pruden atezainaren txakurra loturik zegoen inguruko txoko isila, sekretuz beterikoa. Askatu izena zuen eta kate lodi batez helduta zegoen animalia hura izan zen gure lehenengo musuen lekuko. Eta gu aldiz, bere arnas eta pausu urdurien ohiartzunen erantzule. Aldiz, bereahala ikusi eta ikasi genuen, zoritxarrez, esplorazio horietan gizonezko eta emakumezkoen lizentziek berdin balio ez zutela.

Urte batzuk geroago, txoko hura gure kabuz sortutako egunkari baten bat-bateko erredakzioa bilakatu zen, edo hobe esanda bihurtu genuen, eta bertan izan nuen hedabideetan nire lehendabiziko esperientzia. Irudimenezko istorioak eta balizko gertakizunak asmatuz, idatziz eta irudikatuz, talde lanaren balioaz ohartu nintzen, oharkabean.

Horrela igaro ziren Lamuzako urteak. Egunero, goizean goiz kiroldegira igeriketara joan ostean, ilea oraindik bustirik nuelarik, eraikin hori horretara abiatzen nintzen, Nor- nori- nork-a eta bestelako deklinazioak azaletik sartzen zitzaizkidan bitartean. Jakin ez genekien orduan, baina patio horretan jasotako egurrak bizitzarako beroketa dirudi gaurtik ikusita. Soinketakoak baino beroketa eraginkor eta baliagarriagoak. Garen su honen txingarrak.

Iritzi zutabe osoa Aiaraldea.eus atarian irakurgai

Areta

Kultur Etxearen jabegoa udalaren esku uztea proposatu dute asanbladan

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Duela astebete egin zuten Aretako Kultur Etxearen etorkizunaz eztabaidatzeko bilera. Jende ugari bertaratu zen zitara, 60 pertsona inguru.

Hainbat proposamen plazaratu ziren bertan, baina bat nagusitu zen: Kultur Etxearen jabegoa udalaren esku uztea. Modu horretan, tabernak Santa Anako jubilatuen etxea bezala funtzionatuko luke, barra zerbitzuaren kudeaketa lehiaketa publiko baten bidez ebatzita. Kultur Etxeko gainontzeko espazioek, aldiz, orain arte bezala funtzionatuko lukete

Hori da, behintzat, bileran adostu zena. Proposamena garatu eta udalean aurkeztea da orain Kultur Etxeko kideen asmoa. Gaur egun, tokiko erakundea arduratzen da eraikinaren mantenuaz, jabegoa berea ez den arren.

Igandean utzi zioten Kultur Etxeko egungo kudeatzaileek taberna zerbitzua eskaintzeari. Hala ere, eraikinean egiten diren tailer eta ikastaroek ohiko jarduna mantenduko dute, eraikinean sartzeko giltza izango dutelako elkarteek eskura.

iritzia

Ardiak babesik gabe

Zein ederra den Gorbeia ingurura joan eta bertako paisaiaz gozatzea. Mendeetan bertan ardien presentzia izan da edertasun horren arrazoietako bat. Gure ardi latxa ondo moldatzen da gure mendietako aldapetara baita bertako klimara ere, ama ezin hobea da eta kalitate handiko esnea sortzen du, baina oso ahula da txakurren erasoen aurrean. Gero eta gehiagora doaz eraso horiek, zoritxarrez (azkeneko hilabetean hiru izan dira Orozkon).

"Galera ekonomikoa bere bai, baie txarrena izin zarela inoz trankilo bizi" . Artzainak etsita daude. "Ernari haundi dagoz ganera... ze umekera egingo daurie". Ondo dakite, hildako eta zaurituetatik harago, haurdun dauden ardiak abortu dezente izango dituztela.

Txakurzaleak ugarituz doaz eta txakurrak aske uztea gustuko dute, hor dator arazoa: txakurraren gozamena ardiaren heriotz bihurtzen ari da sarritan. Lehen mailako eta bigarren mailako animalien zerrenda egin behar al dugu? Zergatik ezin dugu espazio bera konpartitu inor kaltetu gabe? Behin hona iritsita, ardiak gure inguruan nahi ditugun galdetu beharko genioke geure buruari. Hala bada, neurriak jarri beharko dira. Aldundi eta udalen aldetik partekatutako espazioetan txakurrak aske ibiltzea debekatzen duen araudia egon badago baina ez da betearazten. Ez dago argi nork, non eta noiz betearazi behar duen. Gainontzeko herritarrok ere konponbidearen parte izan ahal gara, norberarengandik hasita ingurukoak sensibilizatuta. Gizarte osoak daukagu erantzukizuna, ardi latxak geure inguruan jarraitu dezan gerora ere. Aurrera pausua litzake honako albisteei buruz gehiago idatzi behar ez izatea.

"Gizarte osoak daukagu erantzukizuna, ardi latxak geure inguruan jarraitu dezan gerora ere"

JESUS ANGEL SANTA KRUZ
Artzaina

JATSU GUARESTI
Txakur hezitzailea

Txakurrak mendian

Txakurrek artaldeak eraso dituzten kasuak eta horren ondoriozko arazoak betidanik eman dira, baina gaur egun gero eta txakur gehiago daude gure gizartean. Hirietan gero eta arau gehiago daudenez txakur-jabeek mendira jotzen dute txakurrak aske ibiltzearen oinarrizko beharra asetu ahal izateko.

Mendia guztiena da, baina horrek ez du esan nahi ardurarik gabe nahi duguna egin dezakezunik. Non hasi eta non bukatzen da bakoitzaren askatasuna? Heziketa, begirunea, bakoitzaren ardura eta zentzuzko jarreran datza arazoaren oinarria. Bakoitzak bere txakurraren ekintzen ardura dauka. Beraz, txakurrak kasurik egiten ez duela jakinda, jabeak zentzuzko neurriak hartu beharko ditu. Hau da, txakurra ondo hezita ez badago arriskua egon litekeen eremuetan lotuta eramatea edo txakurra lasai askatzeko arriskurik ez dagoen eremuak bilatzea izango litzateke zentzuzkoena. Hala ere, erabakirik onena profesional batengana hurbiltzea eta obedientzia ikastaroren bat burutzea da, txakurra ondo hezita eta kontrolpean izateko.

Gero eta arau gehiago sortzen ari dira txakurrekiko eta txakurzaleok gero eta leku gutxiago daukagu haiek askatzeko, horrek ez die txakurrei inolako faborerik egiten, egun osoa lotuta pasa behar dute askatzeko aukerarik gabe eta horrek portaera arazoak dakartza. Txakurrek hiru oinarrizko behar dituzte, artaldea, lurraldea eta egunero arakatzeko beharra eta horietariko baten faltak portaera arazoak dakartza. Beraz, alde batetik, txakurren oinarrizko beharrak asetzeko aukerak izan behar dugu eta bestetik, jabe bakoitzaren ardura izango da txakurra ondo hezituta izatea mendian arazorik gabeko elkarbizitza ahalbidetzeko.

"Txakurrak kasurik egiten ez duela badaki, jabeak zentzuzko neurriak hartu beharko ditu"

Aimar Gutierrez

? GALDERA

Txakurrak espazio publikoetan aske egon daitezkeela uste duzu?

Jon
Fabrikako langilea

Txakurrak aske joan beharko lirateke beti, nire ustez; eta muturrekorik gabe. Jabea da txakurraren jarrera behatu eta horren araberako neurriak hartzeko ardura duena.

Loli
Erretiratua

Nire ustez beti joan beharko lirateke lotuta, baina iritzi ezberdinak daude. Parkean, adibidez, txakur handiak ikusten ditut aske, eta ez zait ondo iruditzen.

Javier
Erretiratua

Aske edo lotuta eramatea baino, jabeek txakurren gorotzak jasotzea da niretzat garrantzitsuena. Txakurrak oso jatorrak iruditzen zaizkit, baina jabe asko lotsagabe hutsak dira.

Elvira
Erretiratua

Txakur handiak beti joan beharko lirateke lotuta, baina txikiak aske joan ahalko lirateke. Mendian ere lotuta joan beharko lirateke txakur handiak, nire iritziz.

babestutako edukia

Podologia Laudioren 30 urteko ibilbidearen lekukoa hartuko du Zutoin klinikak. Iragan ostiralean inauguratu zuten zentro eraberritua, eta bertako kideak lanean hasi dira dagoeneko, eskualdeko bizilagunei kalitatezko zerbitzua eskaintzeko asmoz, berrikuntza eta profesionaltasuna ardatz hartuta.

Zutoin podologia: Esperientzia eta berrikuntza uztartzen jarraitzeko prest

Iragan ostiralean inauguratu zuten zentro berria, eta lanean hasi dira dagoeneko, eskualdeko herritarren bizi-kalitatean eragitea helburu. **Zutoin**

30 urte beteko ditu aurten Podologia Laudiok, 1989. urtean ireki baitzuen zentroa Angel Romok. Urte berezia izango da aurtengoa Laudioko Carmen kaleko klinikarentzat, fase berri bati helduko diolako. Romok erretiroa hartu du eta orain arte berarekin lan egiten egon den Ikerne Rodriguez gazteak hartu du proiektuaren lekukoa, klinika eraberrituz.

Zutoin da zentro jaioberriaren izena. Gauzak hala, freskotasuna eta berrikuntza ugari batuko zaizkio klinikak hiru hamarkadetan garatu duen ibilbide eta eskarmentu handiari.

Saretzea helburu

Podologian diplomatua eta kirurgian espezializatua da Rodriguez, eta oinen patologia diagnostikatu eta tratatzea da bere helburu nagusia. Horretarako, podologoak balio handia ematen dio beste espezialista eta profesional batzuekin saretzeari, zerbitzu ahalik eta integralena eskaini eta kalitate gorena bermatu ahal izateko.

Zerbitzu bereziak

Zerbitzu sorta oparoa eskaintzen dute klinika berrituan: kiropodia, garbiketak, zaintzak, esplorazio biomekanikoa, plantillak, infiltrazioak, tratamendu kimikoak... Nabarmendu dutenez, kirurgiak ere egiten dituzte, beste zentro batzuekin elkarlanean. Beste klinika batzuek ez dituzten aukerak ere eskaintzen dituzte: interbentzioak, plasma filtrazioak edota barizeen tratamenduak, besteak beste.

Diagnostikoa, ikerketa eta kirurgia dira Rodriguezen egitasmoaren ardatzak. Beste klinika batzuetatik ere bidaltzen dizkiete pazienteak, eskaintzen duten zerbitzuaren kalitate onaren seinale.

Momentuz bi kide daude klinikan lanean: podologoa eta administrari laguntzailea. Biek ala biek ezagutza eta esperientzia handia dute euren arloetan. Badute etorkizun hurbil batean bigarren podologo bat kontratatzeko asmoa.

Eskualdeko erreferenteak izatea dute helburu, eta horretarako profesionaltasuna, etengabeko berrikuntza, zorroztasuna, gertutasuna eta puntualitatea izango dituzte lanabes. Helburu horri begira ibiltzen dira dagoeneko klinikako kideak, zentroaren bidea pausuz pausu eraikitzeko prest.

Etengabeko berrikuntza eta profesionaltasuna dituzte ardatz klinikan. **Zutoin**

ZUTOIN PODOLOGIA LAUDIO

Karmen kalea 15, 1.solairua
LAUDIO
94 672 52 57 **laudiopodologia@gmail.com**

erreportajea

2001. urtean deuseztatu zen erabat derrigorrezko zerbitzu militarra Estatu Espainiarrean. Urte horretan jaio ziren aurtengo kintoak. Ez dute, beraz, ospakizunaren jatorria lehen pertsonan ezagutzerik izan, baina ilusio handiz heldu diote aurten 18 urte betetzen dituztela ospatzeko ekintzen antolakuntzari, garai bateko jaia birformulatuz.

Milurteko berriko kintoen txanda iritsi da

AMURRIOKO KINTOAK

“Kintoak dira gure adineko pertsona guztiak biltzen garen une bakarra”

ENEKO TOQUERO UDAETA (IZORIA, 2001) **eta SAIOA CARBAJO IGLESIAS** (AMURRIO, 2001). AURTENGO AMURRIOKO KINTOETAKO BI KIDE DIRA. OTSAILAREN 15ERAKO PRESTATU DUTEZ FESTAZ MINTZATU DIRA.

Testua eta argazkia
Txabi Alvarado Bañares

Zer dira kintoak zuentzat?

Eneko: Tradizio bat da guretzat. Urte hasieratik genekien aurten gure txanda zela. Azaroan hasi ginen lehen bileran egiten eta abenduan heldu genien entseguei.

Saioa: Eta emozio askorekin.

Zergatik?

Saioa: Tradizio bat delako, betidanik egin dena, eta uste dugu esperientzia polita dela.

Nola bizi izan dituzue kintoak orain arte?

Eneko: Txikiak ginenean kintoak etortzen ziren eskolara eta emozio handiz bizi genuen une hori, koadrilan etortzen zirelako eta pegatinak ematen zizkigutelako.

Saioa: Gure gurasoak ere kintoak izan dira, eta polita da hori bizitzea.

Zenbat pertsona zaudete zuen kintan? Nola antolatzen ari zarete ekintzak aurrera eramateko?

Eneko: Aurten 100 kinto gara. Entseguak astero egiten ditugu, ostiral edo larunbatetan. Otsailaren 15ean egingo dugu festa eta talde bakoitzak non abestuko duen ere antolatzen gabiltza.

Zer moduz entseguak?

Saioa: Beno... (barreak). Jende gutxi bertaratu da, jende gehiago joango zela uste genuen. Baina ondo atera dira.

Eneko: Bai. Pixkanaka-pixkanaka jende gehiago animatu da, azken txanpan batez ere.

Etxez etxe abesten joateak helburu bikoitza du, ezta?

Eneko: Bai. Alde batetik, gure helburua da dirua biltzea gero egiten dugun festa finantzatu ahal izateko.

Saioa: Baina nik uste dut biztanleek gogoko dutela kintoak etxeetara gerturatu eta abestea.

Eneko: Bai, ilusioz hartzen dute eguna.

Zer prestatu duzue otsailaren 15ean egingo duzuen jairako?

Saioa: Elektrotxaranga bat egongo da lehenbizi, 20:00etatik 23:00etara. Erromeria egongo da gero, 1:30etara arte luzatuko dena, eta amaitzeko DJa egongo da.

Iragan astelehenean kantuan aritu zineten hainbat tokitatik. Nondik zehazki?

Eneko: Urtero egiten den ibilbide bera egin genuen. Zazpi taldetan banatu ginen, zonaldeka aritzeko.

Zerbitzu militarrera joaten ziren gazteen agur moduko bat ziren Kintoak. Gaur egun, zertan datza festak zuen ustez?

Eneko: Gutako inork ez du zerbitzu militarraren garaia ezagutu. Horregatik, guretzako beti izan da 18 urte betetzearekin lotutako jai bat.

Saioa: Gainera, gure adineko guztiak biltzen garen une bakarra da.

“Gaur egungo jaia ez da garai batean zegoen berdina”

URDUÑAKO KINTOAK

URDUÑAKO AURTENGO KINTOETAKO BI KIDE DIRA **MAIDER BAS NAVARRO eta JON ZABALA OLAGUENAGA** (URDUÑA, 2001). MARTXOAN EGINGO DUTEN FESTAREN NONDIK NORAKOAK AZALDU DITUZTE.

Testua eta argazkia
Txabi Alvarado Bañares

Nola jaso duzue iazko kintoen lekukoa?

Maider: 2001 urtekoak nortzuk garen pentsatzen hasi ginen lehenbizi. Zaila da jakitea. Andra Mari ikastetxean badago guk ezagutzen ez dugu jende asko, eta batzuetan kintoak ospatzen dituzte, nahiz eta Urduñakoak ez izan. Elkarren artean harremanetan jarri ginen eta talde bat osatu genuen.

Zenbat pertsona zaudete taldean?

Jon: 42 pertsona gaude, Urduñakoak eta herri txikietakoak batuta. Azaroan hasi ginen bilerak egiten dena prestatzeko.

Zer egiteko asmoa duzue?

Maider: Otsailaren 4an hiru talde atera ginen abestera. Arrastariako taldea Aloria, Delika, Artomaña eta Tertangatik aritu zen abesten. Lendoñoko taldea Urduñan aritu zen lehenbizi, eta La Antigua eta Lendoñotik aritu ziren gero. Saratxoko taldea da hirugarrena.

Jon: Martxoan, aldiz, jaia egingo dugu. Musika taldeak lotuta ditugu dagoeneko. Ohiko eskema jarraituko dugu.

Maider: Jaia aurrera ateratzeko diru asko behar da. Udalak 1.000 euro inguru ematen digu egitaraua osatzeko. Guk geuk gure poltsikotik jarri dugu dirua. Horregatik, jaia finantzatzeko bide bat da kantatzera ateratzea.

Ibilbide luzeko tradizioa da kintoena. Zuentzat zertan datza kintoa izateak?

Maider: Tradizio bat da, baina aldatuz joan dena. Gaur egungo jaia ez da garai batean zegoen berdina. Oso egun berezia da guretzat, ondo pasatzeko egina.

18 urte betetzear zaudete. Hemendik aurrera zuen adineko pertsonekin harremana mantentzen jarraituko duzuela uste duzue?

Maider: Nik uste baietz. Hemen bizitzen jarraituko dugu eta gehienok ez dugu kontaktua galduko.

Jon: Urduña oso herri txikia da eta ia denak ikusten gara.

AKETZA MERINO
HISTORIALARIA

Kintoen festa

Lehen eskualdeko beste tokitan ohikoa bazen ere, gaur egun bakarrik Amurrio eta Urduñan mantentzen da kintoen tradizioa Agate Deunaren Bezperan. Urte berean 18 urte betetzen dituztenak etxez etxe eta kalez kale joaten dira taldeka kantatzen, makila eta guzti. Nondik dator tradizio hori?

Ba soldaduzkarekin dago lotuta kintoen kontua. Derrigorrezko soldaduzka egin behar zutenak ziren kantatzera ateratzen zirenak, lehen 21 urterekin eta orain 18 urte betetzen den urtean. Soldaduzka indargabetu ostean, emakumeak kintoekin kantatzen hasi ziren. Amurrion, 1999 izan zen otsailaren 4an talde mixtoak egin zituzten lehenengo urtea. Beraz, aurten 20 urte betetzen dira neskak kintoen festan parte hartzen hasi zirenetik mutilen parean, urte batzuk berbena egunean bakarrik abestu ostean.

Baina, zergatik kintoak? Zer esan nahi du izen horrek? Antzina, urte bakoitzean jaiotako bostetatik bat bakarrik joaten zen soldaduzka egitera eta horregatik “kintoak” ziren.

Dena den, ez dakigu noiz eta zergatik ekin zioten kintoek Agate Deunaren Bezperan kantatzeari. 1878an ezarri zuten derrigorrezko soldaduzka, baina festa honen inguruan ez daukagu datu zehatzik.

Egun horretan kalez kale kantatzea ohikoa izan da Euskal Herri osoan eta herri askotan oraindik koadrila batzuk ateratzen dira. Aztarna aldizkariaren lehenengo alean irakurri dugu Amurrion hiruzpalau koadrillak ateratzen zirela egun horretan, kintoak barne, 1913an haien artean hilketa bat gertatu zen arte. Honen ostean, Ladislao Guerra alkateak kintoei bakarrik baimendu zien ateratzea.

Baina dokumentuak ez datozte bat bertsio honekin. Krimena 1910eko otsailaren 6an gertatu zen, Igande-Iñaute zela. Urteko kintoak Agate Deunaren gauean jasotako elikagaiak jateko elkartu ziren “El Patrón” tabernan. Abesten eta dantzan ibili ziren gero herriko beste mutikoekin. Liskarren bat sortu zen haien artean, lokalaren kanpoan jarraitu zena. Patroiaren semeak, Segundo Ramón Landazuri, kintoa hain zuzen, labankadaka hasi zen agresio baten ostean. 19 urteko Juan Elorza Ugarte hil zuen arren, aske geratu zen epaiketan Landazuri.

Lehen, mutikoek elikagaiak eskatzen zituzten etxez etxe afari oparoa ospatzeko soldaduzkara joan baino lehen. Gaur, neska-mutilek dirua jasotzen dute batez ere, beraientzat afari bat ez ezik guztiok goza dezakegun jaia antolatzeko. Bai, gauzak izugarri aldatu dira, baina, azken finean, tradizioek ezinbesteko aldaketak izan behar dituzte bizirik mantendu nahi baditugu.

Astelehenean atera ziren Urduñako eta Amurrioko kintoak abestera.

AIARALDEA GAUR

agenda

2019/02/06
2019/02/19

“Aupa Hodei!” elkartasun festa igandean Urduñan

Otsailaren 10ean elkartasun festa egingo dute Urduñan. Herritarrek abiatu dute ekimena, Amurrioko Hodei izeneko haurra laguntzeko. Izan ere, *ataxia telangiectasia* gaixotasuna du. Gaitza ikertzera bideratuko dituzte bildutako sosak.

Egitarauari dagokionez, goizean haurrentzat jolasak egongo dira, baita puzgarri eta buruhandiak ere. Egun osoan zehar txosna jarriko dute, eta 13:30ean AEFAT elkarteko aurkezpena egongo da, *ataxia telangiectasia* eritasuna jendarteratzeko. 14:00etan, berriz, zozketa erraldoia egingo dute, eta enkantea.

15:30ean mus txapelketa egingo dute, bikoteka 10€ ordainduta. Sariak ere iragarri dituzte: lehenengoentzat txapela, bigarren bikotearentzat trofeoa, hirugarrenentzat Asegarceko kamiseta eta laugarrenarentzat txakolina eta likore botila. Lehen hiru sailkatuek ere jasoko dute edari sorta. Diru hori ere elkarteari emango diote, babesletza truke eskuratu baitituzte sariak.

Arratsaldea girotzeko musika kontzertuak egongo dira: Pakean utzi arte eta Mandoilteca taldeek joko dute.

Errefuxiatuen errealitatea Amurrio Antzokian ikusgai



Alas Rotas antzezlana ikusteko aukera egongo da Amurrio Antzokian otsailaren 16an, 20:00etan. Caminado para crecer antzerki-taldeak eskainiko du emanaldia. Hainbat jatorritako aktorek osatzen dute taldea eta errefuxiatuen bizipenak landuko dituzte obran. Sarreraren prezioa 6 eurokoa izango da, 5 eurokoa bazkideentzat.

Igandean egingo dute XXIX. Etxaurren Krosa

Otsailaren 10ean egingo da Etxaurren Krosaren XXIX. edizioa. Etxaurren Ikastolako guraso elkarteak antolatzen du kirol zita hori, eta ikastetxeko ikasleei bideratua dago.

Sei lasterketa egingo dituzte guztira, bi zirkuitutan. Lehen bideak 500 metro izango. Bigarrenak, aldiz, kilometro bateko luzera izango du. 11:00etan egingo dute lehen norgehiagoka eta 12:10ean azkena. Izen ematea goizeko hamarretatik aurrera egongo da irekita. Modu horretan, 2005 eta 2010 urteen artean jaiotako haur guztiek parte hartu ahalko dute.

San Pedroko indusketen emaitzak, Alondegian

Hitzaldia eskainiko du Josu Santamarina Otaolak bihar -otsailak 7- Urduñako Alondegian 19:00etan. San Pedro mendian iragan udazkenean eginiko indusketen emaitzak azalduko ditu EHUko arkeologoak. Guda Zibilari lotutako aurkikuntza ugari egin dituzte.

MUSIKA

02.09
Larunbata
21:30 ARRANKUDIAGA
IZATE FALTSUA, SISTEMATIKO ETA PACKAURUM
Txondor gaztetxea

02.09
Larunbata
11:00 LAUDIO
AGATE DEUNA ARLOTEEKIN
Alday nagusien egoitza

02.17
Igandea
18:30 LAUDIO
“PIANO TAUPADAK”
Kasinoa

KIROLA

02.09
Larunbata
6:15 AMURRIO
NEGUKO IRTEERA Alto Campoora
Telefonicatik

02.09
Larunbata
15:15 LAUDIO
IX. MASTER KLASIKOA
Master kategoriako txirrindularientzat, 13 euro balioko du izena emateak
Zumalakarregi etorbidea

02.16
Larunbata
18:30 AMURRIO
AIARA FIGHTERS GENERATION
Sarrerak: 13 euro aurretik eta 16 euro bertan
Bañueta kiroldegia

UMEENTZAKO EKINTZAK

02.09
Larunbata
17:30 LAUDIO
SORGIN ZAPATUA
Disko-festa eta txapak egiteko eskulan saioa
La Milagrosa ikastetxea

TAILERRAK

02.11-02.13

02.08 / 02.09
Ostirala/Larunbata
16:00 / 10:00 OKONDO
“EZ NAIZ FEMINISTA, ALA BAI?”
Kultura etxea

02.16
Larunbata
19:30 ARTZINIEGA
“SOXOGUTIKO JURISDIKZIOA”
Artziniega museoa

02.18
Astelehena
16:00 AMURRIO
GOOGLE APLIKAZIOAK ZURE KUDEAKETA PERTSONALERAKO
Otsailaren 18tik 27ra egingo da 16 orduko ikastaroa, 16:00etatik 18:00etara
Kzgunean

02.18
Astelehena
17:00 LAUDIO
“JANARIAREN PROZESUEN ERABILPENA ARTELANAK EGITEKO MATERIAL GISA”
Kultura etxea

02.19
Asteartea
19:00 LAUDIO
“LA TRAMA DEL 4%”
Liburuaren aurkezpena
Erabilera anitzeko udal aretoa

02.20
Asteazkena
17:00 LAUDIO
“ELIKADURA HIRUGARREN ADINEAN”
Kultura etxea

BESTELAKOAK

02.08
Ostirala
20:00 AMURRIO
SKIMETRAJE
Ski eta snow filma laburren jaialdia
Amurrio Antzokia

02.09
Larunbata
10:00 LAUDIO
BASERRITARREN AZOKA
Herriko plaza

02.11
Astelehena
19:00 ARETA
AUZO BATZARRA: ARETA
Kultura etxea

Mikel Urdangarin eta Igor Arzuaga

Kasinoan

Kontzertua eskainiko dute Mikel Urdangarinek eta Igor Arzuagak datorren larunbatean, otsailak 9, Laudioko Lamuza parkeko kasinoan, "LaudiOHOLTZA" programaren barruan. Gaueko bederatzietan izango da zita. Sarrerek 3 euro balioko dute

Kartelera

LAUDIOALDE ARETOA

El vicio del poder

OTSAILAK 9
LARUNBATA
(3 euro)
17:30 / 20:00

DONIBANE ARETOA

Asterix eta edabe magikoaren sekretua

OTSAILAK 10
IGANDEA (3,5 euro haurrek eta 4,5 euro helduek)
16:30

AMURRIO ANTZOKIA

El regreso de Mary Poppins

OTSAILAK 10
IGANDEA (3,75 euro)
17:30

DONIBANE ARETOA

Atardecer

OTSAILAK 10
IGANDEA (3,5 euro haurrek eta 4,5 euro helduek)
19:00

AMURRIO ANTZOKIA

Un asunto de familia

OTSAILAK 10, 11
IGANDEA ETA ASTELEHENA
(5 / 3,75 euro)
19:30 / 20:00



LAUDIOALDE ARETOA

Dantza

OTSAILAK 16
LARUNBATA
(3 euro)
17:30 / 20:00

DONIBANE ARETOA

Spiderman: Un nuevo universo

OTSAILAK 17
IGANDEA (3,5 euro haurrek eta 4,5 euro helduek)
16:30

DONIBANE ARETOA

Gente que viene y bah

OTSAILAK 17
IGANDEA (3,5 euro haurrek eta 4,5 euro helduek)
19:00

Astelehena / Asteartea
19:00 ARRANKUDIAGA
GAZTE ETA HELDUENTZAKO EUSKAL DANTZAK
Txondor gaztetxea

02.13 Asteazkena
16:45 LAUDIO
"LEHEN LAGUNTZA"
Doako tailerra
Kultura etxea

02.14 Osteguna
18:00 AMURRIO
IDIAZABAL GAZTA DASTATZEKO TAILERRA
Nagusien etxea

02.20 Asteazkena
19:00 ARRANKUDIAGA
GAZTE ETA HELDUENTZAKO EUSKAL DANTZAK
Txondor gaztetxea

ANTZERKIA

02.15 Ostirala
17:00 LAUDIO
"NI NAGUSITAN IZAN NAHI DUT..."
Pánico escénico taldearekin
Kultura etxea

HITZALDIAK

02.08 Ostirala
18:00 LAUDIO
"SENTIKORTASUN HANDIA HAURTZAROAN"
Lamuza ikastetxea

02.08 Ostirala
18:30 LAUDIO
"ZER DAGO APUSTU ETXEEN ATZEAN?"
Gaztetxea

02.08 Ostirala
19:00 LAUDIO
"AMOR, COMIDA Y DINERO"
Liburuaren aurkezpena
Erabilera anitzeko aretoa

02.12 Asteartea
19:00 LAUDIO
AUZO BATZARRA: ARRAÑO
Erabilera anitzeko aretoa

02.13 Asteazkena
19:00 LAUDIO
AUZO BATZARRA: GARDEA
Gardeako gizarte etxea

02.14 Osteguna
19:00 LAUDIO
AUZO BATZARRA: LANDA EREMUA
Erabilera anitzeko aretoa

02.15 Ostirala
18:00-20:00 LAUDIO
ASVIAMIE AIARALDEAREN BILERA
Erabilera anitzeko aretoa

02.15 Ostirala
AMURRIO
KINTOAK
20:00 // Aldats elektrotxaranga
23:00 // Oharkabe erromeria
1:30 // DJ Ruba

02.18 Astelehena
19:00 LAUDIO
AUZO BATZARRA: UGARTE
Ugarteko eliza

02.19 Asteartea
19:00 LAUDIO
AUZO BATZARRA: LATIORRO
Latiorro ikastetxea

02.20 Asteazkena
17:00 URDUÑA
GREBA FEMINISTA PRESTATZEKO ESKUALDEKO BILERA
Alondegia

INFO +
aiaraldea.eus

Kultura

Rockak eta punkak mito bat sortu badute Euskal Herrian, hori izan da Eskorbuto eta La Polla Recordsen arteko ikamika, Laudion gertatu zena, hain zuzen. Duela gutxi argitaratutako liburu biografikoan Evaristok bere bertsioa jaso du, ohartarazita, gainera, ez dela berriro horri buruz mintzatuko.

Eskorbuto eta La Polla Recordsen kondaira beltzak Laudion du jatorria

Testua
Aitor Aspuru Saez

Euskal Herria txikia bada ere, gai izan da kulturaren esparruan mitoak, heroiak eta maltzurrak sortzeko. Batzuetan absurdoak bezain dibertigarriak. Edonola ere, kontakizun mitologikoren bat zabaldu bada euskal punk eta rockean, hori izan da Eskorbuto eta La Polla Recordsen arteko gatazka.

Polemikak lortu du hautsak harrotzea urte luzez eta gaurdaino irautea. Izan ere, bi talde punk horien arteko arazoari kutsu politiko harrigarria eman zaio, zeinean dirua, maltzurkeria, manipulazioa, saldukeria eta zapalduak uztartu diren, gertaera bera guztiz lurperatu eta desitxuratu arte.

Edonola ere, goaz korapiloaren muina azaltzera. Eskorbutoren aburuz, -bereziki Josu Expositoren arabera- Rock Radical Vasco deiturikoa eta bereziki "Martxa eta Borroka" kontzertu sorta, Ezker Abertzalearen asmakizuna izan ziren, bereganatzeko garai horietan aktiboa zen euskal gazteriaren zati handi bat. Manipulazio horren azken urratsa, antza, izan zen Eskorbuto taldea bera kontzertu gehienen karteletik kanpo uztea. Horretarako, Ezker Abertzaleak laguntzaile bikaina izan zuen: La Polla Records taldea.

Santurtziko musikarien ustez, La Polla Recordsek boikota egin zien aitzaki faltsua baliatuta: balizko gitarra baten lapurreta Lamuzako frontoian, jaialdi baten ostean.

Urteen poderioz Eskorbutoko kideen bertsioa lapurreta horren inguruan geroz eta nahasiagoa bilakatu bazen ere, Euskal Herriko giro politiko gorabeheratsuak gainerakoa egin zuen bere tesia sendotzeko. Horren arabera, Ezker Abertzaleko kide zitalek Eskorbutoko gizagaixoak utzi zituzten RRVtik kanpo -baita kontzertuek ematen zuten pezetetatik at- eta horrela, nolabait, Santurtzikoek lortu zuten euren arimak ez saltzea diruaren mundura, La Polla Recordsek ez bezala.

Atmosfera politikoak ez ezik, aipatu beharra dago santurtziarrek ere bere aldetik ahalegina egin zutela historia zabaltzeko. Eskorbutoko kideek maiz errepikatzen zuten istorio bera -lapurretaren ñabardurak aldatuta- elkarrizketetan, La Polla Recordsekoek ezer esaten ez zuten bitartean.

Gero etorri zen IHESA eta Josu eta Juanma eraman zituen behin betiko, eta jakin badakigu hildakoek beti arrazoia dutela. Bizirik ez dauden einean, mito bilakatzen dira, ezin zaie kontraesanetan harrapatu, bere hankasartzeak eta ahulguneak ahazten edo ezkutatzen dira. Bizirik daudenek -La Polla Recordsek, alegia-, ordea, huts egiten jarraitzen dute eta, hori gutxi balitz, kontzertuetan kobratzen!!!

Bukatzeko, polemika honetan ere goraipatu behar da Eskorbutoren bertsioa jakinarazteko tresna izugarria egon zela: taldeari buruzko dossierra, DDT banaketak taldeak saldutakoa. Ez da gehiegikeria adieraztea Euskal Herrian inoiz saldu den aldizkari monografikorik arrakastatsuena izan dela (15.000 aletik gora, agian). Milaka ale saldu dira hemen eta atzerrian. Gainera, liburu bi, gutxienez, idatzi dituzte santurtziarrei buruz.

Evaristo Paramos La Polla Records taldearekin Lamuza frontoian. **Jose Julian Montes -La Ventana de Laudion argitaratuta-**

Evaristoren bertsioa, azkenik

30 urte baino gehiago igaro ostean, nahi duen orok du La Polla Recordsen ikuspuntua jasotzeko aukera, azkenik, Evaristo Paramos abeslariak *Qué dura es la vida del artista* liburua plazaratu baitu berriki.

Testua ez da, inondik inora, goi mailako literatura, baina Evaristoren zein La Polla Recordsen hainbat pasadizo jasotzen ditu eta taldea gogoko duenak gozatuko du Aguraingo astapotro hauen gehiegikeriekin. Ez dira falta adiskidetasuna, borrokak, bidaiak, drogak, irainak, labankadak (metaforikoak zein benetakoak) eta mendekuak.

Esan dezakegu Evaristok parada baliatu duela hainbat jenderekin zuen zorra kitatzeko. Zordun horien artean zegoen Eskorbuto taldea, eta nahiz eta bere izena ez aipatu, argi dago santurtziarrei buruz mintzatzen dela kontatzen duenean Laudion gitarra lapurtu zietela. Are gehiago, Evaristok zehazten du lapurreta gertatu bezain laster, euren Laudioko lagunak jabetu zirela eta uste zutela furgoneta baten barruan zegoela musika tresna.

Evaristoren arabera, berari beldurra eman zion laudioarrek furgoneta eta bertan zeudenak txikitzea, eta eskatu zien gauzak zeuden moduan uzteko. Bitartean, furgonetako erabiltzaileak -Josu Expositok- ukitu surrealista ematen zion egoerari, ibilgailua miatzeko baimen judiziala eskatuta.

Liskarra baretu eta gero, furgoneta joan eta 20 minutura itzuli zen. Orduan bai, gidariak esan zien, nahi izanez gero, arakatzeko aukera zutela. Horrekin Evaristok argi izan zuen eurek lapurtu zietela gitarra.

Liskarraren erdian egon zen Juan Jose Arto Rodriguez, "Pelukas". Antza, Evaristok berak lasaitasuna eskatu baino lehen, Pelukasek lepotik helduta zuen Josu Exposito.

Evaristoren borondatearen aurka, hurrengo egunean Briviescan jo zuten Eskorbutok, La Polla Recordsek eta talde nazi batek. Antza, Eskorbutoko baten batek behin eta berriro zirikatu zuen Evaristo, naziekin primeran konpontzen ziren bitartean. Hortaz, La Polla Recordsekoek erabaki zuten berriro eurekin ez jotzea.

Azalpena aski motza da, baina Evaristok ironia eta pozoi nahikoz betetzen du bere testua, eta nahiz eta Eskorbutoren abestiak goraipatu, bistakoa da bere kideei buruz mintzatzen denean, amorrua eta mespretxua direla nagusi, denbora asko igaro arren.

Laudioarren bertsioa

Evaristo Paramosek liburuan argitzen duen moduan, talde guztiek zuten herriko koadrila bat eurekin, La Polla Recordsek ezik. Agurainen profetak izatea ez zutenez lortu, Laudioko lagun talde bat joaten zen eurekin eta Lamuzako frontoiko kontzertua ez zen salbuespena izan, are gutxiago laudioarrak etxean egonik.

Liskarraren erdian egon zen

Juan Jose Arto Rodriguez. Norbaitek ezagutzen badu, izen horrek ez dio ezer esango. Izan ere, jende orok "Pelukas" deitzen du eta izen bereko ile-apaindegia dauka Laudioko tren geltokiaren alboan.

Berez, laudioarrak ez du ahaztu Lamuzan jazotakoa eta barre egiten du liburuaren atala irakurtzen duenean. Paragrafoen artean hitza hartzen du eta ñabardura gehiago eskaintzen ditu: "Kontzertu oso garrantzitsua izan zen. RIP, Cicatriz, La Polla Records eta Eskorbuto taldeek jo zuten eta hori behin besterik ez zen gertatu". Hori bai, aurretik azaltzen du oroimena oso traidorea eta moldagarria dela.

Hala ere, Pelukasek argi eta garbi gogoratzen du euren susmoa zela Eskorbutokoek lapurtu zutela gitarra eta furgoneta barruan zegoela musika tresna. Berarekin batera bazeuden lagun gehiago: "Muso", Jabi Aval eta Guille Iturriondobeitia (Danba taldekoak), Iñako Villamor marrazkilaria... Antza, Evaristok berak lasaitasuna eskatu baino lehen, Pelukasek lepotik heldu ta zuen Josu Exposito.

Puntu askotan La Polla Recordsen kontakizunarekin bat egiten du: "Juanma eta Josu zeuden furgonetaren atzeko partean, kanpoan. Josuk sekulako kopeta zuen eta modu harroputzean mintzatzen zen. Juanmak, aldiz, jarrera erasokorragoa zuen. Joan eta gero esan zuten ibilgailua miatzen uzten zigutela. Ziurrenik gitarra hortik utzi zuten bitartean".

Geroko kontakizunarekin datek dantza egiten dute. Pelukasen ustez, La Polla Recordsek eta Eskorbutok ez zuten berriro jo hurrengo egunean, baizik eta aste pare baten buruan.



Argitaratu duen azken liburuan kontatu du Evaristo Paramosek Laudioko Lamuzako frontoian eginiko kontzertuaren ostean Eskorbutoko kideekin izandako tirabira

Horrez gain, Evaristok berak aipatzen duen ñabardura bat -guztiz argitu gabe dagoena- gehitzen du Pelukasek: "Txarly La Polla Recordsen gitar-jotzaileak, antza, zor txiki bat zuen Eskorbutokoekin, eta litekeena da Santurtzikoek musika tresna lapurtzea kobratzeko. Ez nago guztiz ziur, baina uste dut gitarra itzuli ziotela euren artean zerbait konpondu eta gero".

Gertakaria Eskorbutoren Cuidado abestiari lotuta dagoela uste du Pelukasek: "Askok esaten dute kanta hori Ezker Abertzalearen kontrakoa dela, baina ez nago ados, nire susmoa beti izan da La Polla Records eta guri buruz zela. Oker egon ninteke, baina beldurrik ez genien inoiz izan".

Pelukas ez da liburuan behin bakarrik agertzen, ezta gatazka bakarrean: "Bizipen guztiak ez ziren liskarrak izan, pasadizo politak ere bizi izan genituen La Polla Recordseko jendearekin".

Garai horiek burura ekarrita, Pelukasek gogoratzen du bolada polita zein arriskutsua izan zela: "Jende oso jatorra zegoen, Victor 'Vomito' taldeko abeslaria bezala. Cicatriz taldeko kideekin kontu handiz ibili behar zinen. Gasteizko El Bodegon tabernan egon ohi ziren eta han labankadak eta lapurretak gertatzen ziren maiz. Taberna horretan ijito kuadrilla oso famatua zegoen eta euren artean gatazkak zeuden".

Horrez gain, La Polla Records taldearen bizitzan zein Evaristoren liburuan laudioar gehiago gurutzatzen dira.

Alde batetik, Evaristok Kali eta Julia aipatzen ditu testu batean -labankada batzuk jasotzen dituzte atalaren bukaeran, tamalez-. Zendutako Angel Aldaiturriaga "Caballo" ere behin baino gehiagotan gogoratzen du abeslariak. Agerpen bitxiena -guztiak dira horrelakoakda Eugenio "Eskupitajo" taldeko baxu-jotzailearena, La Polla Recordsekoek berarekin egin baitzuten topo Italian, Leoncavallo eraikin okupatu sinbolikoan, alegia.

Mugimendu politiko, sozial eta kultural handia egon zen Laudion 80. hamarkadan. Irudian, gaztetxe zaharreko prentsaurreko bat.

JOXE BLANCO

GARAIAREN LEKUKOA

1984

Urte hartako herriko jaiak ziren. Aurreko urtekoen zorigaiztozko amaierak (uholdeak) utzitako zapore garratza gainditzeko beharra zuen herriak. Txosnagunea Lamuza plaza zaharrean. Amnistiaren aldeko batzordeenaren ondoan, "txosna tropikala". Punk-rock eta mugimendu alternatiboaren inguruko gazte taldea batu zen jaietan ekarpena egiteko asmoarekin. Txosna zabaltzearekin batera, kontzertu gogoangarria antolatu zuten Lamuza frontoian, Cicatriz, Eskorburto, RIP eta La Polla bezalako euskal punkaren kondairen parte hartzearekin. AEKren "Euskal Tokia"-n egin ziren antolaketa asanbladak. Garai hartan batere ohikoa ez zen jaialdiak zeresan handia sortu zuen, jende andana erakarri ("itxura susmagarri eta ez-zuzeneko jendillajea") eta herriko hauts atzerakoiak harrotuz. Jo zuten taldeen artean tirabiraren bat ere egon omen zen, instrumenturen bat lapurtu edo... Ezer larririk ez, garaiko erritualen eta desfaseen ondorioak baino ez. Ezin ukatu kontzertuak erabateko arrakasta izan zuela.

Mugimendu alternatiboaren aitzindariak izan ziren ekimen horiek, mugimendu hori eztanda egitear zen unean hain zuzen ere. Baldintza sozial eta politikoak emanda zeuden: Frankoren zerraldoari kiratsa zerion oraindik, egitura faxistek diseinatu eta zelatatutako sasidemokrazia irentsarazten ari ziren bitartean; birmoldaketa industrialak gure herriko lantegirik handienaren itxiera ekarri zuen; urtero ehunka gazte bahitzen zuen derrigorrezko soldaduskaren aurkako ahotsak entzuten hasiak ziren; eskualdeko gazteak urteetarako giltzapetuta urruneko kartzeletan; Araba Euskaraz lehenbizikoz Aiaraldean; komunikabide herrikoien zabalpena; Okupazio Mugimenduaren hastapenak... Herri Mugimenduaren aparteko mobilizazio eta antolakuntza urteak izan ziren haiek. Laudio, Euskal Herri osoan ematen ari zen egoeraren paradigma bat gehiago baino ez zen.

Osagai hauekin guztiekin, Erresuma Batutik zetorren punk mugimenduak baldintza guztiak zituen Euskal Herrian errotzeko. Han bezala (distantziak distantzia), hemen ere punkak bi bide hartu zituela esan liteke. Musika gogorra (hard rockaren bilakaera), salaketa soziala eta estetika probokatzailea izatera mugatzen ziren taldeak zeuden alde batetik; hitz eta estetikatik harago zihoan jarrera politiko eta konprometitua zuten taldeak eta mugimenduak bestetik. Elkarren arteko tirabirak ohikoak izan ziren, gustu berdineko bizitza ulertzeko modu ezberdinak ziren heinean, batzuen jokaerak besteena agerian uzten zuen neurrian.

Urte haietan, Laudio, Euskal Herria, bor-borrean zegoen eltze handia zen, gainezka eginez gero "trantsizioaren izpiritua" zelakoa arriskuan ipini lezakeena. Eta hori estatuak ezin zuen onartu: langabezia, polizia jazarpena, inkontrolatuak, gerra zikina, ZEN plana, heroina... Heroina bai, ehunka gazte aurretik eraman zuen gerra kimikorako gaia; kontzertu hartan parte hartu zuten musikari gehienen ("lapurrak" zein "borrokak") heriotza eragin zuen berbera hain zuzen ere.

Kultura

“70-100 lagun gaude Goazenen lantaldean”

IBAI LABEGA ALGOACIL (Arrankudiaga, 1984)
ARROPA DISEINATZAILEA DA. GOAZEN ETA BAGOAZ SAIOETAKO JANTZITEGIAN DIHARDU LANEAN.

Testua **Izar Mendiguren Cosgaya**

Telebistako jantzitegietan egin duzu lan. Zein programetan?

Goazen, Dantzango eta Bagoazen. Telebistatik harago, baina, nire marka propioa ere badut: River William, eta horrekin nabil lanean. Horrez gain, ballet ikuskizun baterako jantzien diseinua sortu dut, eta beste artista batzuekin egin ditut kolaborazioak ere.

ETBko jantzitegian egiten duzu lan. Zertan?

Jantzitegiko laguntzailea naiz. Gure arduraduna estilista da, eta gero bi laguntzaile gaude. Telesaila hasi baino lehen erosten dugu arropa guztia, pertsonaien arabera. Ondoren, aktoreekin probak egiten ditugu. Telesailaren grabaketetan aktoreak jantzi, arropak lisatu, set-ean egon, *raccord*en kontrola eraman... denetarik egiten dugu.

Grabaketak luzatzean, nola lortzen duzue arropen nolakotasuna mantentzea?

Gidoia aurrez ematen digute, eta horren beharrei erantzuten diegu. Bertan azaltzen bada Ikerrek birritan agertu behar duela, adibidez, arropan duen mantxa mantendu behar du. Gidoiarekin batera pasatzen digute pertsonaien izaera; eta guk horren gainean aukeratu edo erosten dugu arropa.

Telebistako arropak nondik eskuratzen dira?

Pausoka ekoiztetxeak arropategi propioa du, urtez urte gordea. Gainontzekoak hainbat dendetatik ekartzen ditugu.

Telesail baten grabaketa hasi aurretik, zenbateko lana dago?

Nire arduraduna maiatzaren erdialdean hasten da, eta ni ekainean. Aurreprodukzioa ekainaren hasieran abiatzen dugu, Goazen udan grabatzen baita. Iaz ekainaren 4an ekin genion lanari, eta abuztuaren 24an bukatu genuen. Azarotik uztaila arteko kapituluak ateratzen ditugu hortik.

Dantzango programan, aldiz, nolakoa da zure esku hartzea?

Zeharo ezberdina da lana. Coachak janzten ditugu guk -hautatzaileak- batez ere. Izan ere, dantzariek eurek aurkezten digute ideia, eta horren arabera prestatzen dugu guk artista gonbidatuaren jantzia. Niretzat dibertigarriagoa da Dantzango Goazen baino, lana monotonoagoa baita telesailean. Izan ere, Goazen Azpeitin grabatzen da, eta egunero egon behar gara janzten, arropa lisatzen... Niretzat hori da aspergarriena: kameren atzean egon behar dugu, esaterako, Zuzenen sotana garbi dagoela konprobatzen, gurutzea bere tokian dagoela bermatzen... Telesailetan pertsonaien izaera egonkorra da, eta galetan guztia aldatzen da. Erronka desberdina da, abestiak eta pertsonaiak beti aldatzen direlako.

Arropak aktoreen lanean eragiten duela uste duzu?

Arropak ez du baldintzatzen aktoreen lana, baina lagundu bai, pertsonaia hobeto antzezteko. Koloreek ere eragiten dute pertsonaian. Pelikula batzuetan oso nabarmena da erabilera, oso sotila bada ere. Goazenen umeentzat kolore biziak egotea eskatzen digute. Gidoiaren eta pertsonaien arabera aukeratzen ditugu jantziak.

Telebistan parte hartzea nolako esperientzia izan da zuretzat?

Niri gustatzen zait, gustura nago. Bilboko ETBko egoitza ez dut ezagutzen, baina Donostiko Miramonera sartzea sekulakoa da. Goenkale, Vaya Semanita... programa bakoitzak bere biltegia du. Kontaezina da ETBko biltegietako arropa, programa batzuek euren atal propioa dute. Aurkezle batzuek euren armairuak dituzte. Jantzitegian hainbat bulego daude, gurean bi.

Zer da ETBko jantzitegian topatu duzun gauzarik bitxiena?

Denetarik dago: yogako arropa, Guardia Zibilena, trogloditena... Horrek harritu ninduen gehien.

Telebista edo moda, zer duzu nahiago?

Biak. Gehien gustatzen zaidana nire markarekin lan egitea da, jendeak nire sorkutnza propioa daramalako aldean. Bestalde, telebistan jardutea interesgarria iruditzen zait, kreatibitate azkarragoa lantzen delako.

Zenbat lan ikusezin daude pantailen atzean?

Asko. Argi teknikariak, soinuenak, makillajekoak, produkzioakoak... Gure artean oso ondo konpontzen gara. Aktoreak, atrezzokoak, errealizatzaileak... oso jatorrak dira denak. Goazeneko lantaldea 70-100 pertsonakoa da, pentsa! Horregatik, grabaketetan bi unitatetan banatzen gara: batzuk klaseko sekuentziak egiten ari diren bitartean beste batzuk kalekoak aurreratzen ditugu, Oiartzunen esaterako.

Joseba Irazoki, Eskean Kristo, Nogen eta Olatz Salvadorrek joko dute Burubion

Nogen taldeak joko du martxoaren 9an, Serrullarekin batera. **Nogen**

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Indartsu hasi du 2019a Burubiok. Eskaintza oparoa prestatu dute kultur elkarteko kideek urteko lehen lau hilabeteetarako.

Otsailaren 22an Gwa Ya, Cristosaurio eta Kultura Reggae Band taldeek joko dute, gaueko hamarretatik aurrera. Martxoaren 1ean ska doinuek beteko dute Amurrioko aretoa, Guda Dantza eta Stai Zitto taldeek hain zuzen. Hurrengo egunean, aldiz, "Joseba Irazoki eta lagunak" eta Eskean Kristo taldeen txanda izango da. Martxoaren 9an, berriz, Nogen eta Serrulla taldeak bertaratuko dira Burubiora. Bukatzeko, Olatz Salvador eta Sabin Guaresti kantautoreek eskainiko dute kontzertua, apirilaren 12an, euren disko berriak aurkezteko.

Eskaintza oparoa

Burubioko kideek nabarmendu dute "oso eskaintza zabala" osatzen ari direla aurten, "ditugun baliabideak kontuan hartuta, batez ere". Metal, reggae, pop-rock edota rock taldeak igo dira azken hilabeteetan aretoko oholtzara. "Martxoaren 2an bi talde izugarri izango ditugu: Joseba Irazoki eta lagunak eta Eskean Kristo", azaldu du Egoitz Palaciosek, "bestalde Nogen edota Olatz Salvador bezalako taldeak etorriko dira. Disko izugarriak plazaratu dituzte aurten eta kontzertu piloa eskaintzen ari dira Euskal Herriko areto nagusienetan, harrera ezinhobea izanez".

Hiru urteko ibilbidea

Apirilean hiru urte beteko ditu Burubio kultur elkarteak. Hori ospatzeko jaialdi berezia egingo dute apirilaren 26an, Rip, Hertzainak eta Eskorbutoren tributuen emanaldiarekin.

Hala ere, ez dira urteurrena ospatzera mugatuko, beste hainbat erronka baitituzte esku artean. "Gure helburu nagusia aurten udalarekin hitzarmen bat sinatzea da", aurreratu du Palaciosek. "Uste dugu herriari eta baita Aiaralde osoari eskaintza kultural potentea eskaintzen diogula, kultur elkartean gauden 10-12 zorok gure denbora eta bizitzaren parte handi bat eskaintzen ari garelako, musikari diogun maitasuna helburu bezala hartuta".

Bere fikziozko lehen film luzea prestatzeari ekin dio Esti Urresolak

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Bere fikziozko lehen filma luzea sortzeko prozesuari heldu dio Esti Urresolak. *20.000 especies de abejas* da proiektuaren izenburua. "Gariza Films ekoiztetxe zornotzarrak antolatzen duen *Una habitación propia* erresidentzia artistikoaren baitan erditu nuen", azaldu du zinemagile laudioarrak.

Aurreratu duenez, gidoiaren lehen bertsioa idazten ari da orain. "Dena ondo badoa, datorren urtean garapen faseari hasiera emango nioke: lokalizazioen bilaketa, lan talde tekniko eta artistikoaren osaketa, finantziazio bilaketa eta aurre-ekoizpen faseari dagozkion hainbat lan". Gauzak hala, bide luzea du oraindik egiteko. "Zorte handiarekin 2020. urtearen amaieran edo 2021aren hasieran ekingo nioke grabatzeari". Pelikula aurrera ateratzea "erronka handia" izango delakoan dago Urresola, eta argi du ez dela "prozesu motz ezta erraza" izango.

NOKA programan hautatuta

Hala ere, proiektua garatzeari begira pausu esanguratsua ematea lortu du Urresolak, NOKA mentoring programaren lehen edizioan hautatu baitute. Modu horretan, laguntza pertsonalizatua jasoko du laudioarrak.

"Musika bihotzez egin behar da, eta ez poltsikoan pentsatzen"

DUELA URTEBETE HASI ZUEN IBILBIDEA LAUDIOKO **OKHER** RAP ABESLARIAK. HAINBAT ABESTI PLAZARATU DITU ETA ZUZENEKOAK ESKAINTZEN HASIKO DA.

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Erio eta Gorrotoz haziak taldeetan hasi zinen abeslari gisa, hardcore-punka jorratzen. Nola egin duzu saltoa hip-hopera?

Rap musika betidanik kontsumitu dut. Nire esperientzian oinarrituz, iruditzen zait hartzaile edo entzuleari mezua barnerago sartzen zaiola raparekin hardcorearekin baino, errazagoa suertatzen zait sentiaraztea, horixe baita, nire ustez, nire musikaren ezaugarria, baita xedea ere.

Zure lehen abestia amari dedikatu zenion, bigarrenean gai sozialak izan zenituen hizpide... zerk inspiratzen zaitu letrak osatzerako orduan?

Nire kasuan kontrolagaitza da hori, bat bateko gauza da. Ideiak irteten doaz, letrak oso ideia, bizipen eta sentipen pertsonalak direlako da hori agian. Aurreratu dezaket hurrengo lanetan amodioa, desamodioa, gorrotoa eta beste zenbait gai ikusi eta entzun ahalko dituzuela.

Soinuari soilik ez, irudiari ere garrantzi handia ematen diozu.

Irudiaren aroan bizi gara, tristea da zenbait balio galtzen ikustea. Tristea da, era berean, talentuzko jende asko ilunpean egotea baliabide faltagatik. Horren harira erabaki nuen inbertsio bat burutzea zinemagintza materialean bideoklipen edo dena delakoen grabaketetarako.

Asko erakarri nau zinemagintzak beti, liluragarria da buruan duzun irudi bat errealitatera eramatea eta zu ez ezik mundu guztiak ikusi ahal izatea. Gero eta maiteminduago nago zinemagintzarekin.

Hip-hoparen eta raparen mundua metamorfosi batean murgildua dagoela esan daiteke, traparen agerpenak ekarri dituen aldaketekin.

Nire ustez mundu osoa dago metamorfosi itzel batean murgilduta, indibidualismoan, lehiakortasunean eta kapitalismoan. Musikan ere oso agerikoa da hori, balio zaharrak galtzen ari dira... Esan dezakedan gauza bakarra da musika bihotzez egin behar dela eta ez poltsikoan pentsatzen.

Esan nahi dudana da barnetik irteten zaizuna egin behar duzula, ez "top ten"ean dagoenaren antzeko zerbait, "top ten" horren parte izateko ametsarekin...

Abesti eta bideoklip berria plazaratuz hasi duzu urtea. Nola jarraitzeko asmoa duzu?

2018an produkzio lanetan murgildu nahiz zeharo, gelditu barik. Behin ekoizpenak eginda, aurtengo xedea, alde batetik, eginiko lana plazaratzen joatea izango da eta, beste aldetik, zuzenekoekin hastea. Irrikitan nago! Horretarako ekipo on bat sortu dut otsailean entseguekin hasteko.

Xedea izango da zuzeneko osoan zehar ikuslea gure munduan murgiltzea, ez da musika soilik egongo.

Kirola

“Em gazt txape in

EMAKUME MASTER ARI DA **GENTZAN** (Orozko, 1994) PI ZEIN ESKUPILOTARE

Argazkia **Jose Asensio Larrinaga (C)**
Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Emakume Master Cup txapelketan jokatzeari ekin diozue. Zer moduz?

Bai, iragan astean hasi zen. Izaskun Martin da nire bikotea. Bi partida jokatu ditugu, Galdakaon, eta biak irabazi ditugu.

Zeintzuk dira hurrengoak?

Hurrengo norgehiagokak Sodupen, Murgian eta Orozkon izango dira. Guri Orozkon jokatzea egokitu zaigu otsailaren 24an.

Txapelketa horretan aritzen zaren bigarren aldia da. Zer helburu dituzu aurtengo edizioari begira?

Nire bikotea nire neskalaguna da, eta niregatik hasi zen pilotan. Iazko edizioan guztiz hasiberria zen bera, hilabete eta erdi zeraman jokatzen. Horregatik, iazko aukerak ez ziren oso handiak, baina oso ondo egin genuela esango nuke, final laurdenetara iritsi baikinen. Zortzi bikote onenen artean sartu ginen. Esperientzia polita izan zen.

Urtebetean nire bikoteak asko hobetu du, baina hasiberria da oraindik. Horregatik, gure aukerak oraindik ez dira oso handiak, baina irabaztera aterako gara beti. Iaz baino apur bat hobeto egiten saiatuko gara.

Zer nolako maila dago jokalarien artean?

Alde handia dago. Lehen faseetan hasiberri asko daude, baina kanporaketak igaro ahala gero eta altuagoa da maila, normala denez. Jende gazte asko dago, eta oso indartsu datoz. Iaz jokatu zutenak ere maila altua dute, Azpeitia eta antzeko herrietatik datozenak, batez ere.

Noiztik zabiltza pilotaren munduan sartuta?

Ni Orozkokoa naiz eta bertan ez dago gauza askorik egiteko. Frontoia eta futbol-zelaia genituen, besterik ez. Nik bi gauzak egiten nituen: futbola eta eskupilota. Gero heldu zen une bat, 12 urte inguru nituela, zeinetan mutilek sekulako indarra hartzen hasi ziren, eta emakumeekiko aldea asko handitzen hasi zen. Orozkon ni nintzen pilota praktikatzen zuen neska bakarra, eta garai hartan ez zegoen palan aritzeko aukerarik. Horregatik, pilota utzi nuen eta futbolean aritu nintzen hainbat urtetan.

Orain dela urtebete Xakerren hasi nintzen lanean, eta bertako zuzendaria Emakume Master Cupeko zuzendaria ere bada. Berak animatu ninduen berriz eskupilotan aritzera, eta horrela ekin nion berriz.

Orozkoko emakume pilotari bakarra izaten jarraitzen duzu?

Nik uste dut badaudela emakume pilotariak, baina

...akume ...te asko ...daude ...lketan, ...eta oso ...dartsu ...datoz"

...CUP TXAPELKETAN JOKATZEN
...IE ALDAY CALONGE
...LOTARIA. NORGEHIAGOKAREN
...EN INGURUAN MINTZATU DA.

"Orozkon ni nintzen pilota praktikatzen zuen neska bakarra"

pala jokatzeko aukera soilik dutenez ez, dira eskupilotan aritzen. Izaskun eta ni Gernikaraino joan behar gara entrenatzera. Nik ikasi egiten dut goizez eta lan egin, aldiz, arratsaldez. Gauzak hala, saiatu egiten gara astean behin Gernikara joaten eta beste behin Orozkoko frontoian pilotakada batzuk ematen.

"Emakumeen kirolean normalean gertatzen dena da neska gehienak ez daudela fisikoki ondo. Emakume jaiotzea plurienplegatu jaiotzea da"

Pala jokalarien harrobi handia sortu da Orozkon.

Bai. Nire garaian ez zegoen palan aritzeko aukerarik. Orain badago, eta palista ugari daude. Baina iaz saiatu ginen Orozkon eskuz entrenatzen eta klubera joan ginenean esan ziguten ez geneukala horretarako aukerarik. Frontoira lagunartean joateko esan ziguten. Horregatik uste dut baietz, pala sustatu egin dutela eta, ondorioz, sekulako harrobia dagoela. Baina eskupilota ez dute sartuko, ez zaielako interesatzen. Aukera emango balute ziur nago palista bat baino gehiago eskupilotara igaroko litzatekeela.

Behin Master Cupa amaituta, baduzu beste erronkaren bati heltzeko asmorik?

Norgehiagoka honen ostean hurrengo txapelketa serioa Eskuz Banakako Emakume Master Cupa izango da, irailean hasten da. Ordura arte erakustaldiak egingo ditugu bikoteka, hainbat herrietatik deitzen baitigute udan, nesken pilota apur bat modan jarri delako eta udalei ere burua apur bat zuritzeko balio dielako. Lagunarteko partidak dira, erakustaldiak. 15-20 inguru egin nituen iaz.

Zuretzat zer da garrantzitsuena pilotan jokatzerako orduan?

Emakumeen kirolean normalean gertatzen dena da neska gehienak ez daudela fisikoki ondo. Emakume jaiotzea plurienpleguarekin jaiotzea da. Hamar mila gauza egiten ditugu batera: lan egin, ikasi, ama izan, pilotan jokatu... azkenean gorputzak ez dizu denerako ematen. Pilotan zein futbolean nik ikusi dudana da fisikoki ondo dagoenak askoz probabilitate gehiago dituela aurrera egiteko.

Argi dago frontoian ezaugarririk handiena bi eskuekin kolpe ona izatea dela, eta dejadak ere bi eskuekin egin ahal badituzu, askoz hobe. Errealitate bat da heltzen dela une bat zeinetan mutilak neskek baino indar gehiago izatera iristen diren, kirol guztietan gertatzen da hori. Horregatik izaten dute emakumezkoek liga bat eta gizonezkoek beste bat. Baina aukerak anitzak eta berdinak izan behar dira guztientzat.

Nire bikoteak eta nik gauza asko egiten ditugu. Gogoko dugu korrika egitea, martxoan maratoi erdia egitera joango gara Parisera. Dena konbinatzen saiatzen gara. Ez dugu helburu handirik markatzen, baina badugu jarraitzeko asmoa. Aurten ezin badugu Master Cup-a irabazi datorren urtean berriro ahaleginduko gara

Aiaraldean agian ez, baina beste batzuetan harrobia badagoela aipatu duzu.

Orain Emakume Master Cup-a dago eta telebistan ere jarraipena egiten ari diete emakume pilotariei. Nolabaiteko "boom" bat ekarri du horrek, jende asko igo da gurdira.

Larrabetzun eman zituzten lehen pausoak, Txokoan Emakume Pilotarien Elkartea sortuta. Azpeitian beste talde bat eratu zen gero eta hortik tiraka sortu zen Emakume Master Cup-a. Horrek zeresana sortu du komunikabideetan eta harrobiak sortu dira. Nik uste dut neska pilotariak beti egon direla. Ni pentsatzen nuen pilotari bakarra nintzela munduan, baina duela urte eta erdi konturatu naiz Euskal Herrian ehun pilotari baino gehiago daudela eta horietako asko maila handia dutela, gainera.

Nik uste dut emakumezkoen partidak herrietan "egin behar direlako" egiten direla. Hau da, emakumeen kirola sustatzen da lege bat dagoelako esaten duena emakumeen berdintasuna egon behar duela. Ez da sustatzen berez jendeak emakumeen kirola ikusten eta kontsumitzen duelako. Alde horretatik, uste dut "klik" bat falta dela. Ez dakit heziketan edo non eman beharko litzatekeen, baina buelta apur bat eman behar zaio, txiki-txikitatik sustatuta eta aukera emanda kirola praktikatzeko. Nik ez nuen pilotan jarraitzeko aukerarik izan. Orain harritxo bat jarri dugu bidean eta belaunaldi berriek badute jokatzeko aukera.

Ez dago emakumeen liga publikorik. Emakume

"Federazioek emakumeen ligak osatu beharko lituzkete"

Master Cup-a enpresa pribatu batek sortutako egitasmoa da. Badaude ligaxka txikiak, baina guztiz pribatuak dira baita ere. Nik uste federazioek liga bat osatu beharko luketela, gazteek behintzat jokatzeko aukera izan dezaten.

Zer ematen dizu eskupilotak beste kirol batek ematen ez dizuna?

Ni frontoian hazi naiz, eta oso gogoko dut partidetan sortzen den giro sano eta euskalduna. Futbolean harmailetako giroa oso toxikoa da. Frontoian, aldiz, guztiz ezberdina da. Dena dira animoak eta errespetua.

Kirola

TXIRRINDULARITZA

Luisa Ibarrolak 26. postua eskuratu du Munduko Txapelketan

Testua
Aitor Aspuru Saez

Igandean lehiatu zen Munduko Ziklo-kros Txapelketa Danimarkako Bogense hirian eta Luisa Ibarrola 26. sailkatu zen 23 urtetik beherakoen kategorian.

Espainiako Selekzioarekin parte hartu zuen gazteak eta bere taldeko lehena izan zen helmuga gurutzatzen. Saratxoarrak erorketa izan zuen azken-aurreko biran, baina aurreikusitako helburua bete zuen. Horregatik, pozik dagoela zabaldu du.

Sailkapen orokorrean Holandako txirrindulariek menderatu zuten lasterketa eta hiru dominak eraman zituzten Herbeheretara.

TRIALA

Espainiako Trial Txapelketan arituko da

10 urte izan arren, 16-40 urte bitarteko kideekin aritzen da Eneko Martinez lehian.

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Erronkaz betetako urtea izango da 2019an Eneko Martinezentzat, Espainiako Trial Txapelketan arituko da baita. “Sei proba ditu norgehiagoka horrek, urtean zehar egingo direnak”, azaldu dute gazte aiararraren gurasoek. Nabarmendu dutenez, babesletzak eskuratu ditu Martinezek. “Hainbat eskaintza iritsi zaizkigu, baina azkenean Motos Gracia eta Pascuet Offroad Centerrekin aritzea erabaki dugu”.

Urte oparoa izan zen 2018a 10 urteko kirolariarentzat. Bere adinari dagokiona baino kategoria altuago batean aritu da, bere asmoa ez delako irabaztea, “ahal bezain beste ikastea baizik”. Hala ere, garaipen ugari erdietsi ditu. “16-40 urte bitarteko kirolariak izan ditu lehiakide, eta Euskadiko, Nafarroako zein Errioxako norgehiagoketan gailendu da”, nabarmendu dute bere gurasoek. Datorren urteari begira, Europako Txapelketan aritzea izango da Martinezen xedea.

Moto-krosaren tankerako kirola da triala, baina jarduera konplexuagoa da, Martinezen gurasoek nabarmendu dutenez, “askoz teknikoagoa delako”.

Talde propioa

Entrenatzeko talde propioa atondu dute Eneko Martinezen gurasoek, Neko Racing Team izenekoa. "Hiru begirale ditu, eta interesa duen ume orori zuzendua dago". Aurreratu dutenez, entrenamendurako zirkuitu bat osatu nahi dute. Interesdunek honako telefono zenbakira deitu dezakete: 691739314.

IRRISTAKETA

Hainbat domina Lautxirrinkakoentzat Gurutzetan

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Urtarrilaren 23 eta 26an egin zen Gurutzetako irristaketa lehiaketaren X. edizioa. Bertan egon ziren Laudioko Lautxirrinka Kirol Klubeko kide ugari. Maddi Sanchez Txikien o mailan parte hartu zuen eta Nile Navarrok, aldiz, o mailan; eta biek ala biek erdietsi zuten bigarren postua.

Txikien D kategorian, aldiz, honako kideek hartu zuten parte: Nahia Berganza, Izadi Oribe, Elene Gallastegi, Sara Castillo eta Laia Torre. D kategorian, aldiz, Naiara Ramirez, Irene Andrade, Ainara Gorriño, Garazi Varela eta Katerin Gabriela Lozadak hartu zuten parte, eta Gorriñok seigarren postuan geratzea lortu zuen.

A kategorian Soraya Diaz Picon aritu zen. Zuriñe Solaguren Salazarrek, bere aldetik, zilarrezko domina eskuratu zuen Junior mailan.

ESKUPILOTA

Etxean geratu dira Aretako lau t’erdiko lehiaketako txapelak

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Urtarrileko azken ostiralean bukatu zen Aretako gazteen txapelketa. Finaletako partidak burutu zituzten hiru kategoriatan: gazteen mailan, promesetan eta Herriaren XIII. Txapelketa Nagusian. Gazteen artean Alonso gailendu zen, promesetan Yuste-Cuairan bikotea, eta txapelketa nagusian Labaka-Telletxea.

TRAILA

Okondora iritsiko da trailaren olatua maiatzaren 12an

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Egitasmo berria dute esku artean Ganekogorta mendi klubeko kideek. Okondo Trailaren lehen edizioa prestatzen ari dira maiatzaren 12rako. “Okondon orain arte egin ez den zerbait egitea da ekimenaren xedea”, azaldu du Justino Artok, Mendi klubeko kideak, “Bocineros Deiadar Xtreme ultratrailean boluntario gisa aritu ginen. Hori izan zen gure lehen esperientzia, eta gustuko izan genuen”.

Elkartasuna eta kirola uztartuko dituzte proban, Artok jakinarazi duenez, “Gure asmoa izango da dirurik ez galtzea, baina zerbait irabazten badugu Montes Solidarios elkarteari emango diogu, sekulako lana egiten baitute talde horretako kideek”.

Zirkuitu laburra

Artok aurreratu duenez, zirkuitua ez da oso gogorra izango. “Mendi martxako zirkuituaren antzekoa izango da, 17 kilometro izango ditu eta 800 metroko desnibela”. Antolatzaileen hasierako asmoa zen martxa eta traila egun berean egitea, “baina azkenean albo batera utzi genuen ideia hori, mendizaleak eta korrikalariak aldi berean aritzeak estutasuna sortu zezakeelako”.

10:00etan abiatuko dira korrikalariak Okondoko frontoitik. Klubaren webgunean jarriko dute probari buruzko informazio guztia.

TENISA

Ander Urquiza garaile Arabako Tenis Txapelketan

Iragan urtarrilaren 26an jokatu zen Arabako Tenis Txapelketaren 10 urtetik beherakoen kategoriako finala. Laudio Tenis Taldeko Ander Urquizak garaipena erdietsi zuen bertan, Miguel Perez Toribio jokalari gasteiztarra irabaztea lortuta.

Laudio Tenis Taldeko kideek garaipenaren oso balorazio positiboa egin dute. “Euskal Herriko bere mailako jokalari hoberenen artean da Ander”, nabarmendu dute. “Urtarrilean Erregeen Txapelketa irabazi zuen Jolasetan (Getxo). EAEko, Kantabriako eta Nafarroako jokalari onenek hartu zuten parte bertan”. Ieltxu Floresek ere marka ona lortu zuen Infantil kategorian, taldeko kideek gaineratu dutenez.

Urquizak lortu dituen garaipenak teknifikazio klaseen emaitza dira, tenis taldeko kideen ustetan.

FALKONERIA

Yeray Perez bigarren kopa iberiarrean, Portugalen

Yeray Perezek eta bere aitak, Victor Perezek, bukatutzat eman dute 2018-2019 denboraldia. Horretarako Portugalera joz uten, Macedo de Cavaleiros udalerrira, hain zuzen. Han falkoneriako kopa iberiarra lehiatu zen eta biek lortu zuten finala jokatzea.

Victor Perezek ezin izan zuen podiumera igo, nahiz eta iaz irabazlea izan eta urte asko daramatzan proba horretan parte hartzen. Yerayk, ordea, bigarren postua erdietsi zuen.

Herriko plaza

Yarri

Watxapak irakurtzen ez dituzunez, egin kasu egunkariari gutxienez!

Android Sistema Operatiboa

Jurgi

Zorionak Jurgi zure familia osoaren partez!

Familia

BIDALI ZURE ZORION AGURRA!

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus eta Aiaraldea.eus atarian plazaratuko dugu. Otsailaren 20an argitaratuko da hamabostekariaren hurrengo zenbakia.

Denborapasak

	Leizea / Zurginak	▼		Euritako / Poeta	▼		Itsaso nahasi / Zaude	▼		Sabela husteko premia	▼
►			▼			▼			▼			▼
	❖ DEITURA / Ez dira zuzenak	►										
►												
Jostaketak / ❖ IZENA	▼		Jatetxeko jakien zerrenda / Garbaitu	▼		Gasteizko kontzejua / Europako estatua	►							
►			▼			▼		Modu atzizkia / Kontso-nantea	►			Kontsonante errepikatua / Korrokoi	►	
Arma mota / Alegiazko izaki izugarria	►						▼			Gauerokoa / Amore eman	► ▼			
►							Saturnoren satelitea / 2 bokal, herri 1	►		▼			Kontso-nantea / Aurpegiko irekigune	►
Sute / Nafarroako erreka	►		Leitzako herritar / Interjekzioa	►		▼							▼	
►			▼					Emakume izena / Kontso-nantea	►					
Akuria, ugaztun karraskaria	►					Ipar Euskal Herrian, usaina	► ▼							

❖ Futbolari laudioarra

ERRAZA

	9				7			
				1			2	
					2	9		1
4		5				2		9
		8	4	9			1	6
				3				
1			5			8	9	2
5	4		3		9	1		
9					7	5	3	

						9	3	7
	9				7		1	2
	8	7		1				
8		9					4	
		1		5				
	2	5	1	8				
	5	3	4	7			9	
	1		5	9				
			6		3			5

ZAILA

	5	8	3				7	
2		6				5		8
						9		
	9		2		5			4
				8		7		
8	2							
				7	3			
7			8		4		2	
		1					6	

1			6	4				
	7							
9		4						1
				6			7	9
	3			7				4
	4			5	8	3		
	5					9		
4		6	2	9		5		

DENBORAPASEN SOLUZIOAK

Sudoku, hitz-gurutzatu eta hitz gezidunen soluzioak webgunean ikusgai: http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak

Lan-eskaintzak

- **SISTEMA ADMINISTRARIA (Laudio)**
- **ELEKTRIKARIA (Laudio)**
- **CNC LANGILEA (Amurrio)**
- **ERAIKUNTZA LANGILEA (Laudio)**
- **ZAINDARIA (Amurrio)**
- **UR IRAKURGAILEUN INSPEKTOREA (Laudio)**
- **EREMU NATURALEN MANTENURAKO LANGILEA (Laudio)**
- **EREMU NATURALEN MANTENURAKO LANGILEBURUA (Laudio)**
- **TELEKOMUNIKAZIO LANGILEA (Laudio)**
- **MEKANIKARIA-AJUSTATZAILEA (Laudio)**
- **PLC ETA SCADA TEKNIKARIA (Laudio)**
- **EKOIZPEN LANGILEA (Laudio)**

LAN-ESKAINTZA GEHIAGO AIARALDEA.EUS ATARIAN

Zozketa

"Nahas jolas" dantza ikuskizunerako **sarrera bikoitza**

Otsailaren 23an: 18:00etan Amurrio Antzokian.

Parte hartzeko sartu www.aiaraldea.eus en

Zozketa data: Zozketa data: otsailaren 8a, 12:00etan.

Aiaraldea txiki

Sirena

Osa ezazu sudokua, SIRENA hitzak dituen hizkiak erabiliz (S, I, R, E, N eta A). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

E		i			R
	A		E	S	
		A		E	N
N	R				
i			A		
		S			E



Mezu ezkutua

Jar ezazu ikonotxo bakoitzaren azpian, hari dagokion hizkia.
.SIRENA esateko beste bi hitz osatuko dituzu.

Emaitzak





Ba dok hamahiru!

Hau desastrea, autobus honetan! Horra zer ikusten duen autobus-gidariak ispilutik... Begiratzen duen bakoitzean, gainera, aldaketaren bat gertatzen da. Aurki itzazu bi irudi hauen artean dauden aldeak. Hamahiru dira guztira.



Esaera Zaharra

Esaldi hauek ez dira esaera zaharrak, erdi asmatuak dira denak, bat izan ezik. Zein ote da benetako esaera zaharra?

- Astoaren mina, mandoaren atsegina.
- Astoa, astoaren adiskiderik fidelena.
- Astoak ispiluari musu.
- Astoak arrantzarik egiten ez duenean, maiteminduta dagoen seinale.
- Astoek eta ministroek, irribarrea faltsu.
- Astoak mandoari, belarri luze.
- Etxeko astoa, nekazariaren orpoa.
- Astoak eta mandoak, ardoak ditu baretzen.
- Astoa beti setoso.

Kontra

Aiaraldetik mundura

Wolfgang Staudt

Ibon Cuartero Picaza

JAIOTERRIA
LAUDIO (1986)

BIZILEKUA
SHANGAI (TXINA)

BIDAIAREN XEDEA
LANA

“Txinan oso ezberdina da gurasoek gazteen futbol partidetan duten jarrera”

Txinan zaude futbol eskola batean. Nola iritsi zara horraino?

Futbola beti izan dut gustuko eta azken 14 urteetan entrenatzaile aritu naiz. Azken urteetan buruan izan dut atzerrira joatearen ideia. Lehenengo harremana 2017. urtean izan zen, martxoa aldera, baina hemen hainbat konpromiso eta eginbehar nituenez albo batera utzi nuen. Hau buruan izanda, urte amaieran Edinburgora joan nintzen bizitzera nire ingelesa hobetzeko asmoarekin. Azkenik, uztailean aukera berriro etorri zitzaidan eta abuztuan Txinara joan nintzen, Shanghai hirira, hain zuzen ere.

Zertan datza zure lanak?

13 urteko futbol taldearen lehenengo entrenatzaile bezala lan egiten dut eta helburua jokalarien nahiz talde orokorraren maila igotzea da. Talde hau klubaren talde handiena eta garrantzitsuena denez, beste lekuetara jokatzera joaten garenean klubak daukan ospea eta irudia islatu behar dira. Jakin behar da klub hau duela 5 urte sortu zela eta urtero etengabe hazten ari dela.

Zer nolako futbol harrobia dago Txinan?

Txinako gobernutik hasita -presidenteak futbola bultzatu nahi du- hiri eta herrietara zaletasun hori iristen ari da. Gaur egun Txina osoan mila futbol akademia daude, batez ere, azken urteetan sortutakoak.

Gainera, ia eskola guztiek dituzte F-8 edo F-11ko zelaiak. Futbolean gero eta neska-mutil gehiago daude, etorkizunean Txinan dauden taldeen eta jokalarien maila igotzeko helburuarekin.

Zelan moldatzen ari zara zu Txinan?

Espero nuena baino askoz hobeto. Klubeko lankideak eta beste entrenatzaileak oso jatorrak dira eta beti daude laguntzeko prest. Hori oso garrantzitsua da egunerokotasunean eroso sentitzeko. Hizkuntzaren aldetik, lankide nahiz entrenatzaile batzuekin ingelesa erabiltzen dut. Taldeko umeekin ere ingelesa erabiltzen dut, batez ere 6-7 mutil baliatuta talde guztiari mezua zabaltzeko. Bestetik, hizkuntza zaila izanda ere, txinera ikasten hasi naiz. Zailena iruditzen zaidana hizkien eta hitzen intonazioa da.

Futbolaren zaletasuna handia da Euskal Herrian. Txinan ere?

Zaletasuna handitzen doa eta jolasten dugun zelaietan ikusten duzu jendea hurbiltzen dela. Futbol profesionalean gauza berdina gertatzen da, gero eta jende gehiago hurbiltzen da animatzera. Lehengo mailako taldeek jende asko daukate atzetik. Gazteen futbolean gauzarik ezberdinena gurasoen papera izan daiteke. Hemen gurasoak animatzera edo isilik egotera mugatzen dira. Ez dituzu ikusten guraso protagonistak, euren semea hurrengo Messi edo Aduriz izango dela uste dutenak. Klubari, beste jokalari eta entrenatzailearekiko errespetua oso handia da. Partida amaitzean eskerrak emateko duten ohitura oso polita eta gomendagarria da.

Txinan jarraitzeko asmoa duzu?

Momentuz hemen oso gustura nago eta kontratua amaitzen denean ikusiko dugu zer gertatzen den.

SHANGAI

DESKRIBAPENA
Txinako hiririk handiena da Shangai, eta baita herrialdeko hiriburu ekonomikoa ere. Hiria Han dinastian hasi zen hazten eta 1553an eraiki zen bertako harresia. Data hori hartzen da hiriaren jaiotza urtetzat. Populazio dentsitate handia du, 2.750 biztanle bizi baitira kilometro koadro bakoitzeko.

AZALERA
6.340,5 kilometro koadro.

BIZTANLEAK
23,3 milioi biztanle.

HIZKUNTZA
Txinera.

Argitaratzailea: Aiaraldea Kooperatiba Elkartea
Tirada: 10.000 ale.
Maiztasuna: Hamabostekaria
Lege gordailua: BI-1230-2013
Posta elektronikoa: egunkaria@aiaraldea.eus
agenda@aiaraldea.eus
agurrak@aiaraldea.eus
Publizitatea: publizitatea@komunika.eus
Tlfnoa: 688 62 53 94
Helbidea: Nerbioi Kalea 12, behea. Laudio. Araba. 01400
Telefonoak: 94 656 85 54/688 62 59 00
Web-gunea: www.aiaraldea.eus
ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraldea Aldizkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

ESKER BEREZIAK BANATZAILE BOLUNTARIOEI:
Xabier Ugalde Gulias, Jabi Asurmendi Sainz, Unai Llano Anda, Eider Solatxi, Alberto Martinez Gutierrez-Barquin, Ali Orue Del Valle, Garrastatxu Landaluze Okeranza, Genma Corbella Eguilez, Unai Vicente Basterra, Estibaliz Bideguren Otaola, Aitor Fernandez de Pinedo, Endika Arribas Gulias, Eunate Molinuevo Olabarria eta Koldo Rodriguez

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:

orozko · URDUÑA ORDUÑA · Aiarako Udala · Arakaldo · OKONDOKO UDALA · LAUDIO UDALA AYUNTAMIENTO DE LLODIO · AMURRIO

G! Graf!k
Tellería 2, Laudio (Araba)
94 672 65 43// info@grafiksarea.com

ausolan

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

JEZ
Arantzar, z/g
LAUDIO (Araba)
946 721 200 // infor@jez.es

GASALAARINA EUSKALTOPAGUNEA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA